

# Berrigara



## Makina-erreminta indarrean

*Bergara eta Antzuolako enpresak Bilbon*



### Aukerako Ibilgailuen Azoka Bergaran

Asteburuan ere irekita

Martxoaren 11tik 18ra

**MECA**  
**ILERRA**  
millaga 5  
BERGARA  
76 40 68

TWINGO Pack elektrikoa.	980.000 Pta.
ESPACE 2.2 DT. RT. 7 leku	3.650.000 Pta.
LAGUNA 2.0 RXE. Gidaria	1.850.000 Pta.

### Ez diezazutela ihes egin



RENAULT  
Aukerak  
zure hobekeria



Martxoaren 19an aitaren eguna



# Aita

LAKET: Barrenkalea 35 • ZUBIKUA: Barrenkalea 24 • CRISTINA: Arruriaga z/g • EGIZABAL: Bidekurutzeta 13 BE

# dotore jantzi dadin

*CRISTINA*



# egizabal

Oinetakoak





# Lan orduak eta lanpostuak

Iñigo Iñurrategi / Ikaslea

Oraindik urak bare antzean dauden arren, lan orduen banaketa bazterrak arrotuko dituen gaia izango delakoan nago. 35 orduko lan astea lortu beharreko helburu bezala jarri beharko genuke, baina prozesu baten fruitu gisa, eta ez momentuko egoera edo erabaki baten ondorioz. Gakoa aho betean gehiegi erabiltzen den kontzeptu simple bezain oinarrikoan datza: lehiakortasunean (eta beronekin eskutik datorren kalitatean). Horretan buru belarri diharduten enpresari zein langileengan paradigma aldatuta dago: helburua ez da gehiago saltzea, irabaziak gehitzea, lanpostu gehiago sortzea, lan astea murriztea... horiek emaitzak dira; helburua lehiakorrago izatea da. Eta lehiakorra mundu mailan. Puntu horretara iritsita (eta ez oso urruti adibide bat baino gehiago daukagu), enpresa horretan lan orduen murrizketa, soldata igoerak, kontratazio baldintzen duintasuna, malgutasuna... guztiak izan litezke bideragarri. Eta gainera, enpresa horrek zuzenean lanpostu berriekin hasteko gaitasuna izango duelako.

Gaur egun, mundu mailan lehiakorra den enpresa batek ez dio beldurrik hemendik urte gutxitara izango dugun merkatuen beherakada ziklikoari, ziur aski orduan are gehiago finkatuko baitu bere nagusitasuna. eta baldintzak egokiak diren honetan goranzko arrastotan sartzen jakin beharko genuke; bestela, zertarako balio digu orain lanpostuak gehitzeak hurrengo krisialdian horiei eusteko gauza ez bagara?

Errezeta? Errezeta ez dakit, baina gakoa langileon prestakuntzan datza,

*"Etorkizunean, aurrean izan nahi badugu, ozenki aldarrikatu beharko genuke gure burujabetasuna Madrileko gobernuaren aurrean, INEMaren transferentziak sekulako garrantzia baitauka."*

eta ez teknologia, soldata edo kontratuen flexibilitatean. Etorkizunean, lehiakorra heziketa eguneratua duten emakumezko eta gizonezkoak dituen enpresa izango da. Teknologia lortzea ez da arazoa izango. Ezinbestekoa da gazteek behar bezalako hezkuntza jasotzea eta enpresetan etengabeko hezkuntza lantzea aurrean izan nahi badugu, eta gure bailarako %6ko langabezi tasa hori jaitsi nahi badugu. Arlo honetan, ozenki aldarrikatu beharko genuke gure burujabetasuna Madrileko gobernuaren aurrean, INEMaren transferentziak sekulako garrantzia baitauka.

Azkenik, aipatu nahi nuke enpresa berriak sortzearen garrantzia, eta batez ere industri enpresena: hauengan sortzen den lanpostu bakoitzeko hiru sortzen dira, zuzenean, zerbitzu enpresetan (ez da txantxetako). Enpresa berriak sortzeko ekimena duen jendeari laguntasun guztiak eman behar zaizkio.

Eta ea guztion artean 35 baino 30 orduko lan astea lortzera iristen garen; orduan aisialdiarekin zer egin ez genuke jakingo. A ze komeriak! B

■ barruan



**Juan Idigoras**

Argazkizalea

*"Orain dela 39 urte ekarritako kamara berarekin jarraitzen dut argazkiak egiten"*

8. orrialdean.



**Mikel Erentxun**

Kantaria

*"Nire musikan nabaria da entzuten ditudan taldeen eragina; hori ez dut sekula ukatu"*

23. orrialdean.



**Doroteo Samanes**

Jubilatua

*"Ez naiz juergazalea, baina jaietan gaupasaren bat egiten dut"*

29. orrialdean.

# orain dela...

## BERGARAN GERTATUA

**1984.** Martxoaren 15ean Ertzaintza Unzueta jauregian kokatzeko obrak egiteko baimena ematea onartu zuen Udal batzorde iraunkorrek. Aurrez, otsailaren 9an, Beheko Estazioan kokatzeko baimena emana zuen Udalak.

## EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1554.** Martxoaren 11n sute itzelak Durango erre zuen.

**1622.** Martxoaren 10ean Gregorio XVI.ak Loiolako Iñigo eta Xabierreko Frantzisko kanonizatu zituen.

## MUNDUAN GERTATUA

**1908.** Martxoaren 8an, gizonezkoen lan eskubide berak aldarrikatzeko New York-eko ehungintza fabrika batean entzerratuta zeuden 129 emakume hil ziren. Bertsio ezagunenak, eragindako sutearen ondorioz hil zirela dio.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 6

20-25-36-41-43-45 (osag.14/er.3)

#### Astelehena 9

10-21-22-32-44-49 (osag.47/er.3)

#### Martitzena 10

11-31-34-41-43-44 (osag.2/er.9)

#### Eguaztena 11

2-3-12-28-42-45 (osag.37/er.7)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 7

9-17-22-26-44-45 (osag.18/er.1)

#### Domeka 1 Gordoa

21-29-34-35-44-46 (osag.2/er.1)

### ONCE

**Eguakitza 6:** 20.380 (K. seriea: 001)

**Astelehena 9:** 42.875

**Martitzena 10:** 59.494

**Eguaztena 11:** 61.294

### BESTE BATZUK

**Bedelkarreko harakinak:** 2.875

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Udaberriaren atarian neguak bete-bete harrapatu gaitu. Azken egunotan bezala hotza egingo du asteburuan, eguasten eta eguenean baino euri gutxiago egingo badu ere; 700 metrotik gora elurra. Hai-zeak Iparrekialdetik joko du.

## Ilargiaren aldiak



Ilbete: martxoak 13



Ilbehera: martxoak 21



Ilberri: martxoak 28



Ilgora: apirilak 3

## Eguzkia

Domekan



Sortu: 07:29



Gorde: 19:24

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max. °C	min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
<b>Eguena 5</b>	18	10	-
<b>Eguakitza 6</b>	25	5	-
<b>Zapatua 7</b>	20	6	0,4
<b>Domeka 8</b>	16	9	10,7
<b>Astelehena 9</b>	14	10	12,6
<b>Martitzena 10</b>	16	7	7,2
<b>Eguaztena 11</b>	9	6	40,1

## farmaziak

### Eguakitza 13

GUALLAR.

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

### Zapatua 14

ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

### Domeka 15

ESTELLA.

Matxiategi 5, Bergara. Tf. 76 19 63.

### Astelehena 16

MOZOS. 22:00ak arte.

San Pedro 4, Bergara. Tf. 76 12 15.

AMEZUA. 22:00etatik aurrera.

Sta. Marina 32, Arrasate. Tf. 79 09 74.

### Martitzena 17

CAMACHO. 22:00ak arte.

Oxirondo 4, Bergara. Tf. 76 11 74.

ZABALA. 22:00etatik aurrera.

Zarugalde, Arrasate. Tf. 77 16 30.

### Eguaztena 18

PUY. 22:00ak arte.

Barrenkalea 25, Bergara. Tf. 78 16 87.

RUIZ. 22:00etatik aurrera.

Magdalena 31, Arrasate. Tf. 79 14 09.

### Eguena 19

GUALLAR. 22:00ak arte.

San Antonio 5, Bergara. Tf. 76 11 05.

MORALES. 22:00etatik aurrera.

Araba etorbid., Arrasate. Tf. 79 18 65.

## ogia

**Domeka 15:** Mizpildi.

# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Espermatozoide gabeko haurduntza

Alikanteko Bernabeu Institutuko ikertzaileek, espermatozoidea-aren aurrendaria den zelularen mikroinjekzio bidezko haurduntza lortu dute. Zelula horrek obulo bat ernaltzeko beharrezko den material genetiko guztia du. Beraz, espermatozoideak sortzen ez dituzten gizonezkoak ere aita izan ahal izango dira.

## Telefonoak

### Osasuna / Larrialdiak

SOS deiak	008
DYA	78 71 57
Gurutze Gorria	76 55 76
Larrialdiak	76 12 94
Anbulatorioa (txanda)	76 24 40
Anbulantzia	55 49 62
Udaltzaingoa	77 91 06
Ertzaintza	76 53 40
Suhiltzaileak	78 28 00
Osasun Etxea	76 24 40
Arrasateko ospitala	79 53 00
Asepeyo	76 16 43
Pakea	76 13 49
Alcer	76 12 62
Angiozarko medikua	78 90 27
Antzuolako medikua	76 62 23
HIES Ekimena	79 26 99
Odol emaleak	76 16 24

### Garraioak

Euskotren	45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	76 19 50
RENFE	28 35 99

### Udala

Udaletxea	77 91 00
Udal Artxiboa	77 91 32
Euskara Zerbitzua	77 91 66
Igerilekuak	76 20 51
Kirol Zerbitzua	77 91 67
Kultur Etxea	77 91 58
Liburutegia	77 91 62
Mizpirualde Egoitza	76 13 68

### Prensa berriemak

Berrigara	76 03 97
Egin	76 45 52
El Correo	76 10 90
El Diario Vasco	76 81 57
Extra	79 82 68

### Bestelakoak

Bedelkar	76 04 68
Epaitegia	76 14 92
Erregistroa	76 13 15
Jardun	76 36 61
Jubilatuen Etxea	76 21 40
Mendi Nekazaritza	76 25 47
Musika Eskola	76 57 80
Notaritza	76 10 73
Postetxea	76 26 85
Xipizaro ludoteka	76 23 76

# zorion agurrak



**Marijose Manovel**  
Martxoaren 18an  
19 urte. Zorionak  
Miren, Kristina eta  
Olatzen partez!



**Asier Arbulu**  
Martxoaren 15ean  
13 urte. Zorionak  
famiariaren partez!



**Josu Mentxaka**  
Martxoaren 14an  
6 urte. Zorionak  
lagunen eta  
gurasoen partez!



**Markel Castelo**  
Martxoaren 15ean  
8 urte. Zorionak  
Uzuri eta gurasoen  
partez!

# bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

## Amandriai sartu

Gezurra sartu, ziria sartu.  
- Bueno i, ori amandriai  
sartuixok nai bok.



JOSU OKINA



**Asier Franco**  
Martxoaren 16an  
17 urte. Zorionak  
arriba Lorea eta  
gurasoen partez!




**Jasone Zabala**  
Martxoaren 14an  
19 urte. Zorionak  
zure ahizpa Ane  
Mirenen partez!



**Sandra Tabares**  
Martxoaren 16an  
9 urte. Zorionak  
aitona-amonen eta  
gurasoen partez!



**Diana Pineda Garcia**  
Martxoaren 17an  
8 urte. Zorionak  
famiariaren partez!



**Loren Gomez**  
Martxoaren 15ean  
24 urte. Zorionak  
kuadrilaren partez!



**Eneritz Madariaga**  
Martxoaren 11n  
11 urte. Zorionak  
etxearen partez!



**Aritz Lamikiz**  
Martxoaren 10ean  
17 urte. Zorionak  
etxearen partez!



**Nerea Urzelai**  
Martxoaren 10ean  
10 urte. Zorionak  
famiariaren eta  
lagunen partez!



**Igor Lete Aranburu**  
Martxoaren 14an  
14 urte. Zorionak  
gurasoen eta anaia  
Josuren partez!



**Maite Unamuno**  
Martxoaren 14an  
9 urte. Zorionak  
etxearen partez!



**Ibai Linazsoro**  
Martxoaren 10ean  
urtebete. Zorionak  
famiariaren partez!



**Susana Larrañaga**  
Martxoaren 18an  
14 urte. Zorionak  
gurasoen eta  
ahizparen partez!



**Ainhoa Sasieta**  
Martxoaren 15ean  
2 urte. Zorionak  
etxearen partez!



**Nerea Rodriguez Gonzalez**  
Martxoaren 14an  
10 urte. Zorionak  
famiariaren partez!



**Andoni Breña**  
Martxoaren 16an  
urtebete. Zorionak  
famiariaren partez!



**Ainhoa Eguren**  
Martxoaren 12an  
7 urte. Zorionak  
Asierren eta  
famiariaren partez!



**Maikel Cid Muñoz**  
Martxoaren 14an  
14 urte. Zorionak!  
Familia eta  
aiton-amonak.



**Joseba Zangitu**  
Martxoaren 14an  
30 urte. Zorionak  
nobixia eta lagunen  
partez!



**Amaia Iztueta**  
Martxoaren 16ean  
12 urte. Zorionak  
etxearen denen  
partez!



**Amaia Anton**  
Martxoaren 16an  
23 urte. Zorionak  
lagunen partez!



**Maider Beistegi**  
Martxoaren 13an  
24 urte. Zorionak  
kuadrilaren partez!




**Irune Murgizu**  
Martxoaren 15ean  
25 urte. Zorionak  
kuadrilaren partez!

**Ignacio Eguren Bilbao**

Lehen urteurreneko meza domekan,  
martxoak 15, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde  
aurretik eskerrik asko famiariaren partez.*




**Maite Maiztegi**  
Martxoaren 15ean  
14 urte. Zorionak  
lagunen eta  
famiariaren partez!



**Mikel Asensio**  
Martxoaren 10ean  
4 urte. Zorionak  
gurasoen eta  
anairen partez!



**Marisabel Okina**  
Gaur, martxoak 13,  
bere urtebetetzea.  
Zorionak Igorren  
partez!




**Aitor Zubikarai**  
Martxoaren 20an  
13 urte. Zorionak  
etxearen partez!

**Julian Garitano Elkoroiribe**

Goian bego.

*Famiari eskerrik beroenak eman nahi  
dizkizuegu saminean eta elizkizunetan lagun  
izan zaituztegunoi.*




**Noelia Garcia**  
Martxoaren 13an  
22 urte. Zorionak!  
Gurasok, ahizpa  
eta lagunak.



**Jon Arrieta**  
Martxoaren 14an  
10 urte. Zorionak  
gurasoen partez!

## ANTZERKIA

### ► Eibarko Antzerki

**Jardunaldiak:** "Los titeres de cachiporra" gaur, eguakitza; "La venganza de Don Mendo" astelehenean; "La hija del capitán" martitzenean eta "El gran teatro del mundo" eguaztenean. Denak Hezkuntza Esparruan, 20:30etan.

### ► AED Antzeki Taldearen

kale antzerkia bihar, zapatua, 18:00etan Arrasaten.

## ERAKUSKETAK

### ► Benito Canteroren

"Paisaiak" argazki erakusketa Antzuolako Udaletxean igandera arte.

### ► Carlos Goitia margolariaren

erakusketa Nahikari tabernan.

## MUSIKA

### ► Idi bihotz eta Utikan

gaur, eguakitza, Oñatiko Gaztelekuan, 22:30etan.

### ► Ume gaiztuak gaur,

eguakitza, 22:30etan Arrasateko Gaztetxean.

### ► Udal Musika Bandaren

kontzertua domekan, 12:30, Novedadesen. Programa: El fallero (J. Serrano), L'arlésienne (G. Bizet), Claudia (M.G. Bastida) eta El Caserio (J. Guridi).

### KONTZERTUA

## Soziedad Alkoholika/ El ultimo ke cierre

### Jam Aretoan


Noiz: zapatua, 21:30.

Sarrera: 1.300 PTA (1.500 takilan).

Soziedad Alkoholika taldeak bere azken diskoko kantak eta bere kantu ezagunenak eskainiko ditu bihar, zapatua, Jam aretoan. Orain 8 urte, "Intoxicacion etilica" izenburuko maketarekin, Gasteizko boskoteak ikusmin handia piztu zuen eta hainbat musika adituk Euskal Herriak eman duen talderik basatienaren etiketa jarri zioten berehala. Oraingoan euren azken lanarekin datoz Bergarara. "¡No intente hacer esto en su casa!" beraien seigarren diskoarekin bide berriak jorratu nahi izan dituzte SAKoek eta horrela hip hop eta reggae doinuak somatzen dira kantu berrietan. Juan abeslariaren hitzetan, "agian Estatuan ez dago guk gaur egun lan-tzen dugun musika egiten duen talderik.

Azken diskoa oso pertsonala da. Hip hop eta reggae tankerako doinuekin esperimentatu dugu, gure betiko estiloarekin uztartuz". Besteak beste, Raffaella Carraren "Rumore" kantuen bertsioa landu dute SAKoek azken diskoan. 1998ko jirari ekin aurretik, abenduan Argentinan izan ziren SAKoak.

Aurretik, El ultimo ke zierre taldekoak arituko dira Jamen. Castellon-go taldeak hamargarren urteurrena bete du dagoeneko. "A cara de perro" da bere azken lana eta diskoaren izenburuaren ildotik, musika eta testuak taldearen gogorkeriaren adierazle dira. Taldeak punk-rock estiloko kantuak joko ditu bihar Bergaran, tartean "Odio a la nueva mayoría", "Sometido", edota "Quiero ser tu perro", Stooges taldearen bertsioa. B



Juan, Soziedad Alkoholikako abeslaria.

## IKASTAROAK

### ► Islada Bideo Tailerrak

hainbat ikastaro antolatuta ditu: bideo sarrera-ikastaroa (martxoaren 24tik maiatzaren 8ra), gidolaritza (uztailaren 6tik 21era) eta

edizio ikastaroa (urriaren 23tik azaroaren 27ra).

Argibideak Kultur Etxean.

## LEHIAKETAK

► Bergarako XIII. Literatur Lehiaketa.

Adinaren arabera bost talde bereiztuko dira eta lanak apirilaren 22rako eman beharko dira Udaleko Euskara Zerbitzuan. Argibideak: 77 91 66.

► Mendi Asteko Marrazki Lehiaketa, 5. eta

## ZUBIETA elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA,  
ERA GUZTIETAKO  
INSTALAKUNTZAK.

Kruz Gallastegi 2 behe  
☎ 76 23 48

UDABERRI-UDA

denboraldiaren hasiera

Janden

Eta orain  
52ra arte  
taila  
haundiak

Gazte eta emakumeendako jantzi eta osagarriak  
Irizar 1, BERGARA. Tf. 76 20 03

6. mailako ikasleentzat. Gaia: mendiko kirolak. Marrazkiak (DIN A 3 orrietan) martxoaren 24a baino lehen aurkeztu beharko dira Udal Kirol Zerbitzuan.

► **Txorimalo lehiaketa**  
Erramu Zapatuan, apirilaren 4an. Izen-ematea apirilaren lehena baino lehen Kartzelan. 76 36 61.

## DEIAK

► Gipuzkoako XXIX. **Hiru Txirloko Bola Txapelketaren** bigarren jardunaldia bihar, zapatua, Elgetan, 17:00etan.

► **Bergarako zikloturisten irteera** domekan, 9.15etan Plazatik. Ibilbidea: Bergara-Landa-Ozaeta-Landa-Bergara, 75 km. guztira.

► **Mahai-ingurua:** Kirola osasun baldintza bezala. Partaideak: Antxon Gorrotxategi, Diego Garcia, Ion Odriozola, Aitor Elkoro, Jokin Etxaniz, Agustín Aranzabal eta Iñaki de Mujika. Martitzenean, hilak 17, 19:00etan Miguel Altuna Institutuan.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, hilak 18, Seminarioko lokalean 18:30etan.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak martxoaren 26rako Errioxara egun osoko irteera antolatu du.

Santo Domingo bisitatu ondoren, bazkaria Haron egingo da. 2.400 pezeta. Izen-ematea 76 21 40 telefonoan.

► **Formigalera** eski irteera martxoaren 19tik 22ra. Alpeetara irteera apirilaren 10etik 17ra. Izen-ematea Pol-Polen (76 48 51).

► **Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak** udarako programa ezberdinetarako hezitzaileen hautaketa prozesua ireki du. Eskaerak martxoaren 16a baino lehen bidali behar dira. Argibideak 42 79 27 telefonoan.

## KINTADAK

► **1958tik 62ra** bitartean Angiozarren jaiotako enafaria martxoaren 28an. Izen-ematea 78 22 80 eta 76 54 81 telefono zenbakietan.

► **1956ko** Gipuzkoako kintoen bazkaria apirilaren 5ean Zarautzen. Joateko interesa duten bergararrek 76 11 73 telefonoan eman dezakete izena.

► **1964an** jaiotako enafaria apirilaren 25ean. Argibideak Plazako kioskoan (Luke). Izen-ematea 1.000 pezeta.

► **1953an** jaiotako enafaria uztailaren 4an Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako aurrerape-na) Antxonin bertan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades Pactar con el diablo

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### ARRASATE. Alai zinema Mejor...imposible

Eguakitza: 19:00, 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga Jackie Brown

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 16:45, 19:30, 22:15.  
Domeka: 16:45, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15

#### EIBAR. Rialto Medidas desesperadas

Eguakitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana Titanic

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 18:30, 22:30.  
Domeka: 18:30, 22:30.  
Astelehena: 18:30, 22:00.

#### ANTZUOLA. Gazinema El mundo perdido

Eguakitza: 22:00.  
**Bio-dome**  
Domeka: 16:30.

#### ELORRIO. Arriola Giro al infierno

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

#### AZPEITIA. Zelaitxo L.A. Confidential

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.  
Domeka: 16:45, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

### PACTAR CON EL DIABLO

**Zuzendaria:** Taylor Hackford.  
**Aktoreak:** Keanu Reeves, Al Pacino, Charlize Teron.  
Kevin Lomax abokatuari (Keanu Reeves) epaitegietan eta bizitzan ere dena primeran doakio. Ez du kasu bakar bat ere galdu, nahiz eta batzuetan gaizki jokatu. Floridatik New Yorkera lanera joan eta han John Milton (Al Pacino) ezagutuko du. Honen alboran arrakastarekin obsesio-natuko da...



### JACKIE BROWN

**Zuzendaria:** Quentin Tarantino.  
**Aktoreak:** Samuel L. Jackson, Pam Grier, Robert Forster eta Robert DeNiro.  
Tarantinoren hirugarren filmea Eibarren. Bere jarraitzaileek aurreko filmeetako (Reservoir Dogs, Pulp fiction) biolentzia botako dute faltan. Bi ordu t'erdiz droga trafikatzaileen inguruko istorioa landu du. Milioi erdi dolar artean delarik, dirua eskuratzeko jende gehiegi azalduko da prest...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

## IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 76 23 79

## LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5  
BERGARA  
☎ 76 10 57



**Asteleheneko Plenoan Juan Idigorasek Bergarako Udalari egindako argazkien dohaintza onartu zen. Argazkizale amorratua, Idigorasek ekitaldi ofizialak, jaiak eta herriko bizitzarekin zerikusia duten beste hainbat aspektu jaso ditu bere kamararekin azken 40 urteotan. Berak ateratako 4.320 argazki Udal Artxiboan gordeko dira.**

JUAN IDIGORAS  
Argazkizalea

*“Orain 39 urte ekarritako kamara berarekin jarraitzen dut argazkiak egiten”*

**G.** Zelako argazkiak dira Udalari lagatakoak?

**E.** Denetik dago; herriko baserriak (San Prudentzio aldekoak ateratzea falta zait bakarrik), ekitaldi ofizialak, Bergarako lekuak, jaiak, omenaldiak, Santa Marinako irudi guztiak (hiru erretabloenak), San Pedroko banaka batzuk ere bai... 1960 urtearen inguruan ekin nion argazkiak ateratzeari eta ordutik gaur arte ateratako argazkiak dira denak. Rollei 6x6 kamara bat ekarri zidaten orain 39 urte eta kamara berarekin jarraitzen dut; argazkiak ateratzeko afizio handia izan dut. Musika eta argazkilaritza, horiek dira nire hobbyak.

**G.** Zein balore daukate argazkiek?

**E.** Polita izaten da lehengo argazki zaharrak ikustea, lehen herria zela zegoen ikusteko, herriaren garapena ezagutzeko. Nik ateratako argazkietatik, esate baterako, Bergaran egutegi banaka batzuk egin dira eta Santa Marinako irudiak egin zituen Luis Salvador Carmonari buruz idatzitako pare bat liburutan ere agertzen dira batzuk.

**G.** Kronista lanak egin dituzula esan genezake, orduan

**E.** Ez nuke horrenbeste esango. Nire kapritxorako ateratu ditut. Burura etortzen



Idigorasek azken 40 urteotan ateratako 4.320 argazki eman dizkio Udalari.

zitzaidan guztia atera izan dut. Kalitateari buruz zera esango nuke: ekitaldietan objetiboaren aurrean gertatzen dena jasotzea besterik ez da; paisaietan, berriz, patxada handiagoz, estetika hobetzeko elementuak kontutan hartzeko aukera dago.

**G.** Zein erabilpen emanago zaie zure argazkiei?

**E.** Udal Artxibategiak

**“Polita izaten da lehengo argazki zaharrak ikustea, lehen herria zelakoa zen ikusi eta urteotan izan duen garapena ezagutzeko”**

erabaki beharko du hori. Gasteizen eta Bartzelonan, adibidez, argazki fondo aberatsak dituzte eta ikusi beharko da han nola jokatu duten argazki zaharrek. Artxiboak lan handia hartu du argazki guztiak artxibatzeko. Ni narras samarra izan naiz alde horretatik eta argazki asko fetxatu gabe nituen.

**G.** Zela sortu zen Udalari argazkiak emateko aukera?

**E.** Arantzazu Oregi udal artxibozainak nire argazkiekin zer egiteko asmoa nuen galdetu zidan eta horrela sortu zen bertan lagatzeko aukera. Beraien proposamena ontzat eta poz-pozik hartu nuen.

**G.** Oraindik ere jarraitzen duzu kamararekin...

**E.** Bai, azkenengo aldiz “Berpizkunde hiritarra” erakusketaren inaugurazioan izan nintzen. Justo Garateren omenaldikoak ere baditut, ikurriñaren legalizazioaren jaioak ere bai... Horrelako ekitaldietara joateko ohitura daukat. Lehen, gazteago ginenean, ilusio handiagoz aritzen nintzen, baina hori ere galtzen joaten da. Lehen errezago hartzen nuen kamara.

**G.** Atera dituzun argazkietatik, bakar bat aukeratu behar izanez gero, zeinekiko geratuko zinateke?

**E.** Ez nuke jakingo esaten. Niretako denak izan dira berdin samarrak, guztiekin interes berdina jarri dut, ez daukat bat bestea baino gustokoagorik. Hala ere, ni beti izan naiz Santa Marinaren zaletua eta hango erretabloak eta imajinak asko gustatzen zaizkit. Barrenkaletik hartuta, Santa Marinaren bista bat ere asko apreziatzen dut; nire lehenengo-etako argazki bat izan zen eta argazki ona dela uste dut. B



# Udal Intsumisoen Elkarteko kuoten likidazioa onartu zuen Udalbatzak

## Bestalde, San Migel kaleko lehen etxea erosi du Udalak

**Eudimaren iazko eta aurtengo kuoten likidazioa onartu zuen Udalbatzak astelehenean HB eta EAren aldeko eta EAJ eta PSE-EEren kontrako botuekin.**

Eusko Alkartasunak, gobernu taldean egon arren, kontu honetan oposizioarekin bat egin zuen eta, honenbestez, HB eta EAren 9 zinegotzien botuekin aurrera atera ziren aipatutako puntu hori eta HBk aurtengo udal aurrekontuei buruz aurkeztutako erreklamazioa. Azken puntu honetan, aurtengo udal aurrekontuetan jaso ez den Udal Intsumisoen Elkartearen kuota ordaintzeko diru partida bat jasotzea eskatzen zen.

Bergarako Udalak Eudimako kide izateagatik, bertako estatutuetan jasotzen denez, ordaindu beharreko kuota urteko 203.270 pezetakoa da; beraz, 1997 eta 1998 urteei dagokiena 406.570 pezeta dira.

Boto esplikazioan, Mikel Egurenak (HB) intsumisioaren inguruan jarrera garbia



San Migel kaleko lehen etxea (estankokoa) erosi du Udalak eta aurki botako dute.

izateko eskatu zion alkateari. Honek, berriz, intsumisioaren gaietarako Udal Intsumisoen Elkarte sortu beharrik ez zegoela eta Eudalek, Udalen elkarteak, gai horiek bideratu ditzakeela erantzun zion.

### San Migel kaleko etxea

Asteleheneko Plenoan, Badator datu basean sartze-

ko hitzarmena, 1998rako udal langileen konbenioa eta San Migel kaleko lehen zenbakiko etxea erostea ere onartu ziren aho batez. Antzuolatik datorren Uhola erreken ubideratze lanak hasi aurretik, hainbat etxe erosi eta bota behar dira eta Udalak, dagoeneko, erosi ditu bota beharreko etxe guztiak, erreka ondoan dagoen txabola bat izan ezik.

San Migel Ieko eraikuntza-aren behe oina (estanko eta guzti), lehen pisua eta ganbara 6 milioi pezetagatik erosi ditu Udalak. Guztira, 90 milioi pezeta gastatu dira San Migel Ietik 5era arteko etxeen, La Parrakoen eta San Antonio ermitako jabeei konpentsatzeko. Azken bi eraikuntza hauek botata daude eta San Migel kalekoak laister botako dituzte. B

**DENA  
100etik**

**ZURE OPARIENTZAKO**

Simon Arrieta 3




**GAZTELU  
BURDINAKI DENDA**

Mintegi 1 • Tf. 76 32 48 / 76 34 50 • BERGARA

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-taberna**

Eguneroko janariak / Txixizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 76 39 53



Lorategi publikoetan setoak, landareak eta harriak behin baino gehiagotan lapurtu izan dituztela salatu du Udalak.

# Lorategi publikoetan landareak lapurtzen dituzte ezezagunek

## Udal gobernu batzordeak jokabidea salatu du

**Herriko** hainbat lorategitatik jendeak landareak, harriak eta setoak hartzen dituela publikoki salatu du Gobernu batzordeak. Antzandenez, herritar bat baino gehiagoren ohiko jokaera da kaleko lorategi publikoetatik landareak lapurtzea. "Urtean bi bider landatzen ditugu lorak, udaberrian eta udazkenean, eta jendeak lorategietatik landareak eta setoak, batez ere, hartzeko ohitura hartu du" esan digu

Iñaki San Jose Udaleko Obra eta Zerbitzuen buruak.

Urtean milioi eta erdi pezeta bideratzen ditu Udalak herrian zehar dauden lorategi publikoak txukun eduki eta lorak, zuhaitzak edota setoak birlandatzeko. Amillagako gasolindegiaurrean dagoen lorategian eta Pakea ondoan dagoenean izan dira, batez ere, lapurretak eta hauek ohiko bihurtu direnez "lapurretak

publikoki salatzea" erabaki du Gobernu batzordeak.

Bestalde, udal langileak San Martin ikastetxearen atzealdean egiten ari diren obrak hil honetan amaitzea espero da. Estolderia eta argiteria berritzu, jardinerak ipini eta zubitik Boni Laskurainera doan pasabidean espaloia egin dute. Ibaiondo kalera doan tunelean, bestalde, metro bete lur kendu dute. Hil bukaeran zoruan asfaltua botako dute. B

## LABen egoitza inauguratuko du gaur Rafa Diezek

### LAB sindikatuak

Ibargarai 39an zabaldu duen egoitza berria gaur inauguratuko da arratsaldeko 6:30etan. Ainhoa Agirrezaldegik bertso saioa eskainiko du lehenengo eta, ondoren, Rafa Diezek, sindikatu buruak, hitz batzuk luzatuko dizkei bertaritutakoei. B

## Osasuna eta kirolari buruzko mahaingurua

### Eroskiko Kontsumitzaileen Elkarteak

antolatutuen "Osasuna eta kirola" izeneko jardunaldien barruan, datorren martitzenean arratsaldeko 7etan mahaingurua bat izango da hainbat kirolarirekin: Diego Garzia, Ion Odriozola, Aitor Elkoro, Jokin Etxaniz, Agustin Aranzabal eta Antxon Gorrotxategi kirol medikua gonbidatu dituzte. Moderatzailea Iñaki de Mujika kazetaria izango da. Asteazkenean, elikadura, osasun integrala edota kirolaren inguruan jardun dute hainbat adituk. B

**MUJIKA**  
**Jantzidenda**

Barrenkalea 1 Tf.: 76 29 91



OZAETA AUREGIA  
Tf.: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



**LASA**  
*Jatetxea*



Ilcapaindegia  
Solariuma

Bolu 51 Tf. 76 50 32

# ELAko German Kortabarria Elkarriko herritarren foroetan

## ELAren iritziz Estatutua tranpa bat dela esan zuen

### Elkarrik bultzatutako

Bergarako herritarren foroak antolatuta, German Kortabarria ELAko buruak hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Kultur Etxean. Euskal Herrian bizi dugun gatazkaren aurrean, azkenaldian ELAk hartu duen jarrerari buruz mintzatu zen German Kortabarria. Bere garaian Estatutuaren aldeko apostua egin bazuen ere, ELArentzat gaur egun Estatutua ez dela baliagarria esan zuen; sindikatuaren iritziz, Estatutua tranpa bat da eta gehiengoak onartutako legea izan arren, Madrilgo gobernuak ez du errespetatzen. Kortabarriak marko juridiko-politiko berria aldarrikatu zuen.

Bestalde, sindikatu abertzaleekin elkarlanerako le-

henengo iritzia, 1992an egin zuten kongresuan entzun zirela esan zuen eta azken urteetan LABekin egingdako elkarlanaren balorazio positiboa egin zuen.

Gatazkari irtenbide bat topatzeko ETA soberan dagoela, eta sindikatu eta alderdi abertzaleak integartzeko edo batzeko oztopo bat dela adierazi zuen. B



German Kortabarria joan zen egueneko berbaldian.

## Abelazle Elkarreak urteko batzarra egingo du domekan

**Deba Garaiko** Abelazle Elkarreak batzar orokorra egingo du domekan 11:30etan UNED-en. Elkarteko ordezkari berriak aukeratzeko hautagaien aurkezpena, albaitariaren kontratazioa, 1998ko aurreikuspenak eta 1997ko ekitaldiko gorabehera ekonomikoa aztertuko dira. B

## Prekarietatearen eta ETten kontrako manifestazioa

**ELA eta LAB** sindikatuak, Duina ikasle koordinadorak, Jarrai gazte erakundeak eta Txapa irriatiak ETten eta prekarietatearen kontrako manifestazioa antolatu dute, gaur, eguakitzan, iluntzeko 8etan plazan. B

## 10 milioi pezeta batu dira Mikel Vicenteren aldeko ekintzetan

Mikel Vicenteri eta bere familiari laguntza emateko antolatutako ekintzetan (Gabonetako saskia, jaialdia, kontu korrontea e.a.) 10 milioi pezeta batu dira. Antolatze lanetan aritu diren oso balorazio positiboa egin dute eta publikoki eskerrak eman nahi izan dizkiote laguntza eman duten erakunde eta herritar guztiei. Oraingoan, ez dute beste ekintzarik antolatuko, Aita Menni ospitaleko medikuek apiril bukaeran ospitalean

ingresatuta jarraitu behar duen esan arte. Mikel Vicenteren osasun egoerak hobera egin du astetik astera eta dagoeneko astebukeretan lagunekin kalean ibiltzen da. Bestalde, gogoratu nahi dizuegu herriko dendariak emandako produktuekin osatutako saskiaren zozketan sarituak irten ziren hiru zenbakiak honako hauek direla: 21.588, 01.437 eta 16.190. Hiru sariak bergararren artean banatu dira. B

## “Jose Mari Etxaniz askatu” Plataformaren aurkezpena

“Jose Mari Etxaniz askatu” izeneko Plataforma aurkeztuko da zapatuan 13:00etan San Martin plazan. Etxanizek 18 urte bete zituen gartzelan joan zen ostailaren 19an eta aske lagatzea eskatzeko Plataformak antolatu dituen ekintzen berri emango da zapatuan. Etxanizek zortzi urte daramatza Puerto de Santa Marian eta zortzi urte hauetan irtetzeke eman dituen zeldaren erreplika bat jarriko da plazan astebukaeran,

jendeak nolakoa den gertutik ikus dezan; bestalde, Etxaniz aske lagatzeko firma bilketa egingo da. Orain arte hainbat sinadura batu dira, horien artean Victoria-



no Gallas-tegi alkatearena eta Zabala, Elkorro eta Bolinaga alkate izandakoenak. B

# Berrigara

315 zenbakia,  
1998ko martxoaren 13a.

Errotalde Jauregia, 20570 Bergara  
Telefona: 76 03 97. Faxa: 76 29 77  
E.mail: berrigar@sendanet.es  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Edu Mendibil,  
Mikel Elkorobereziar. **Maketazioa:**  
Iñaki Iturbe. **Publizitatea:** Kristina  
Romero. **Harpidetza:** Gorka Elortza.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan  
Plazaola, Alex Labaien. **Erredakzio  
kontseilua:** Miguel Angel  
Elkorobereziar, Alex  
Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:**  
Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon  
Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin  
Elaxpuru, Josu Okina, Luis Mari  
Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop.  
Elk. (Zubiillaga. Oñati).

Azaleko argazkiak:  
Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jaurlaritzako  
Kultura saila

## gutunak

**Iritzi, protesta edo desioaren bat adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskuan: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigar@sendanet.es (Gutunak identifikatu egin behar dira).**

### FUNERARIA ARRASATE

Heriotza guztiak berez tristeak badira ere, beti azaltzen da samina jasantaingoa egiten duen zerbait edo norbait. Oraingoan ere Funeraria Arrasate izan da.

Martxoaren 1ean Bergaran osaba hil ondoren, prepotentzia jantziriko jaun erdaldun bat azaldu zitzaigun baserrian. Esperientziak hala erakutsita ordurako prest geneukan eskela, euskaraz jakina. Euskarazko testua erdaraz irakurri zuela konturatu ondoren, mesedez zegoenetan kaleratzeko eskatu zitzaion, euskaraz. Erantzuna: "Si quieres lo haces tú!", "¿Dudas de mi trabajo?. Azkenean, etxeko eta kanpokoen aurrean eztabaida ebiztatzearen (ez baita inorentzat une goxoa izaten) komunikabidetakoa geure gain hartu genuen (ez baitzen horren erantzule egiten) eta berak kalekoaren ardura hartu zuen. Berriz ere euskara hutsen jartzeko esan zitzaion eta "A mí me vas a decir cómo tengo que hacer mi trabajo!" entzun behar izan genuen.

Astlehenean kaleko eskela guztiak erdara hutsen zeuden.

Heriotzaren aurrean saminez beterik dagoen familiaren egoera aprobetxatuz Funeraria Arrasatek egin duenak ez dauka izenik. Idatzi beharra geneukan osabak lasai atsedean har dezan.

Loidi Garitano  
anai-arrebak

### ESKOLEI DIRU LAGUNTZAK ETA HB

Kaixo HBko lagunok:

Aurreko asteko Berrigaran eskolei emondako diruen gainian agertu zan informaziñua dala eta gauza batzuk zehaztia nahi giñuke. Diru laguntzak banatzeko orduan D eredu potentzia bihar dala diñozue, baina, hori hola izanik be, konprentsiñua agertzen dozue D eta B ereduak dauzkan San Martin eskolian aurrin "...D ereduaren alde egiten den lana baloratu behar dela...", bere garaian D eredu guztiz ezartzeko aukerarik eduki ez izana ere baloratu behar dugu".

Lehenengoz, aittatu deigun, guk geuk be baloratzen dogula, eta zeinek ez, San Martin eskoliak kasu honetan, eta beste edozeinek berian, D eredu eta euskeriaren alde emon leizken pausuak, eta txalotu eta zoriontzen dittugula, eta horregatik begi onez ikusten dogula lehen aittatutako konprentsiño hori.

Baina beste zerbait be gehitu nahi gontsake lelengo puntu horri: Mariaren Lagundia ikastolia atzera pauso posiblerik eztaukan bidia jorrazten hasitta dagola orain dala hogeita bi urtetik honuntza euskara munduan. Hemen dittuzue horren zerbait adibide: B ereduak desagertze progresibua daroia, eta laster Derrigorrezko Hezkuntza guztiko eredu bakarra izango da D eredu, orain dala hamabi urte bukatu zeban D eredu ikasitako lelelengo promozioñuak; gure ikastola-

ko Hezkuntza Proiektuan plante mendu linguistikua ardatz nagusi tako bat da, urte gutxian barr harreman eta giroan demaseko ar rrerabidia jo dogu..., badira adibi gehixao be. Hau leitzen dihardi zuenok, jakin eizue, Mariaren Lagundia ikastolia euskeria eta eskol kulturaren aldeko apostu tiki eta militantia daukala, eta hori dala gure etorkizuna eta, gure ustetan itzaropen osoz, Bergarako herria rena ere bai.

Horregeatik hain zuzen be eskatuko gontsuke, faborez, diru banaketarako kriteriuak ezartzen dittuzuenien D ereduari eta euskeriari prioridadia emon nahi baitzue, bat gatozela, baina kriteriuak zehaztu eta gero berone markatzen ez dittuan diferentzia zeuek ez markatzeko. Ze bestela edo kriteriua gaizki dago, ala edo dituzue egoerak ezagutzen (gure behintzat ez). Susterrian daren beste arrazoiak beste batzuk badin garbi esan, oso ulergarrixa dala danok pentsakera eta ideia iguala ez izatia. Horixe falta giñuan baki rrik! Baina argi esan faborez.

Gai honen gainian gogoetia edo eta iritzi elkartrukia egittia osogokua izango giñuke, danok elkarren barri eduki deigun, egoera zuzenian ezagutzeko aukeria eduki deigun eta hala errealdadera ahar den eta gehixen hurbildu. Lastarte arte ba, besarkada bat.

Mariaren Lagundia  
irakaslea

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



■ atrebentzia ezpada

## Zer deritzozu toki publikoetan tabakoa erretzea debekatzeari? Neurri egokia iruditzen zaizu?



**Maria Araceli Osuna**

Lokal jakin batzuetan egoe-  
ra jasangaitza izaten da eta  
ondo ikusten dut erretzen  
ez lagatzea. Etxean inork ez  
du erretzen eta neurri ego-  
kia izan daiteke.



**Raul Pozo**

Ez zait logikoa iruditzen ta-  
bakoa saltzea eta gero de-  
bekatzea. Ni erretzailea naiz  
eta berdin dit, baina onartu-  
ko nituzke erretzea debeka-  
tzen dituzten tokiak.



**Mari Tere Leturia**

Nire ustez, ona izango litza-  
teke hori, baina nik uste dut  
ezin dela egin. Tabernak txi-  
kiak dira, jatetxeetan erreza-  
goa litzateke guneak bereiz-  
tea. Dena dela, zaila da.



**Jose Luis Cachafeiro**

Primeran iruditzen zait. Ni  
erretzaile amorratua naiz,  
baina ondo ikusten dut ho-  
rrelako neurriak hartzea.  
Erretzen ez dutenekiko  
errespatorako ondo legoke.



**Mari Karmen Lasheras**

Ni ez naiz erretzailea eta  
keak nahiko molestutzen  
nau, bai. Baina erretzea de-  
bekatzearen kontra nago;  
aguantatu egin beharko  
dugu...



**Karlos Olabarria**

Erretzailea ez naizen mo-  
mentutik ondo ikusten dut.  
Toki publikoetan ahal dela  
nik erretzea kendu egingo  
nuke, erretzaileendako gu-  
neak bereiztuz, gutxienez.

■ bai, esan!



**Gertaera edo ekintzaren  
bat salatu edo txalotu  
nahi baduzu, 76 03 97ra  
deitu eta sail honetan ja-  
soko dugu zuk esana.  
Identifikatu gabeko me-  
zurik ez da onartuko.**

**Jose Alberdik** deitu  
zigun astelehenean Be-  
rrigarara salaketatxo bat  
egiteko. Joseren ustetan  
azkenaldian Usondoko  
parkea nahiko zikina da-  
go eta pena handia ema-  
ten dio parkea horrela  
ikusteak. Josek ez daki  
zeinen ardura den par-  
kea garbi mantentzea  
baina dagokionari beha-  
rrezko neurriak hartzea  
eskatzen dio. Hain parke  
ederra izanik, hobetu  
zaindu beharko genuke-  
la dio Josek. Horretara-  
ko, bai parkea erabiltzen  
dutenen eta baita mante-  
nimendu arduradunen  
kolaborazioa eskatzen  
du. Guztiok errespetuz  
jokatuko bagenu, parkea  
eta herriko beste txoko  
batzuk, itxuraz hobetuko  
zirela dio.

■ ikuspuntua: ainhoa lete

### Noiz iritsiko da?

Ez dakit noiz hasi zen. Ez dakit noiz bu-  
katuko den, noizbait bukatzen bada. Baina  
gure kaleetan espagnolismoa nagusitzen ari  
da. Hori da azkenaldian jasotzen dudana me-  
zua. Pintadak viva Españaka. Bandera espa-  
ñolak kaleetan margotuak. Euskararen aur-  
kako eraso lotsagarriak. Mahai Nazionala-  
ren gartzelaratzeta. Hauteskundetako alderdi  
españolaren igoera...Eta gure ixiltasuna.

Ostegunean AEKko ordezkari bat Lege-  
biltzarraren aurrera joan behar izan zen. Ur-  
teetan euskararen alde borrokatzen aritu



ma harriskutsua ote da gure hizkuntza? Zer-  
gatik da material berdina hain harriskutsua  
batzuren eskuetan eta ez besteenetan? Zer-  
gatik dira ekintza berdinak delitu batzuen  
eskuetan, eta demokraziaren aldeko bultza-  
da besteenetan? Gogor eta harro ari dira la-  
nean. Eta bien bitartean, euskaldunak zer,

den koordinakundea  
delitu susmagarri  
baten erantzule da.  
Delitua? Delitua al  
da euskara irakas-  
tea, euskara norma-  
lizazio biderantz  
bultzatzea? Hain ar-

nola esango beldurrez. Orain Mahai Nazio-  
nala izan da, ondoren AEK. Hurrengoa?

Batzuetan egoera honen aurrean beldur-  
tu egiten naiz, zer datorkigun pentsatuta.  
Baina beste batzuetan agian euskaldunok  
ikasteko hori behar dugula pentsatzen dut.  
Gure herriak beti jasan du zapalkuntza. Bai-  
na batzueganakoa izan da orain arte. Edo,  
hobeto esanda, batzuek sentitu dira bakarrik  
zapalduak. Agian zapalkuntza hori orokor-  
tzen denean esnatuko gara, orduan izango  
da denok elkartzeko eguna. Eta egun hori  
iristen bada beldurtuak beste batzuk izango  
dira, euren harrotasuna beste nonbaiten  
erakutsi beharko baitute. B

■ asteko menua

# Basurdea saltsan

## OSAGAIAK

(4 lagunentzat)

- Basurdea (kilo bat)
- 2 kipula
- Azenario bat
- 6/7 berakatz buru
- 2 porru
- Kopa bat koñak
- Ardo beltza (litro laurdena)
- Basurdearen hezurrekin egindako salda
- Gatza



JOSE MARI LETURIA  
Eguzkitza Erretegikoa

## PRESTAKETA

- Basurdea ondo garbitu eta zatitu.
- Irin piskatekin nahastu eta zartaginean frijitu.
- Olio berean kipula, azenarioa, berakatz eta porruak potxatu eta koñakarekin flanbeatu.
- Guztia txinotik pasatu.
- Basurdea eta txinotik pasatu dugun saltsa sutan egosten jarri okela bigundu arte. Presio-lapikoan eginez gero, hogeitatu minutu; bestela, ordubete edo.

■ adituen esanetan

## Insomnioa

RICARDO PAGOAGA, *medikua*

Insomnioa lo hartzeko edo lotan mantentzeko (goiz esnatuz) zailtasuna litzateke eta bi eratakioa da: aldi baterakoa (disgusto bategatik adibidez) edo kronikoa (trastorno mediku edo psikiatrikoengatik, eta botikak eta estimulanteak hartzeagatik). Insomnioak helduen %30ari afektatzen dio, eta 50 urtetik gorakoen artean ohikoa da. Kausak diferentek dira: gaisotasun organikoak (arnasketakoak, ultzerak...), psikiatrikoak (depresioa, antsietatea...), botikak hartzea edota estimulanteengatik (alkohola, kafeina, nikotina...).

Tratamenduari dagokionez, lehen-

bizi zerk eragin duen jakin behar da eta hortik aurrera zuzentzen eta eliminatzen saiatu. Dena den, ohera joan baino sei ordu lehenago ez da komeni alkoholik hartzea eta insomnioa izatekotan ez da siesta gomendatzen. Psikoterapiak lasaitasuna eta laguntza eskaini dezake eta inportantea da, era berean, ariketa fisikoa egiten ohitzea, baina ez ohera joan baino lehen, eguerdian hobe. Tila infusioaren bat, berotutako esne piskat edo bainu bero bat hartzea ere lagungarriak izan daitezke. Metodo hauek porrot eginez gero, medikuak agindutako botikak hartu daitezke. B

■ bergarako gordailutik

## ESKLABUAK

Imanol Sorondo

**B**ergaran ere bazeuden esklabu (jopu) banaka batzuk, bertako nagusien menpeko. Udaletxeko artxi-bategian badago San Pedroko elizari buruz 1652 urtetik aurrera datat dakartzan liburu bat. Azaroaren 21ean, meza nagusiaren ondoren, sakristian elkartu ziren apaizak, Agirretar Martin buru zutela, herriko agintariak, Argizaindar Migel alkatearekin, eta jende asko, horietatik 64 eliztarren izenak ipintzen direla.

Bere asmaoa: elizan, alboetako aldareak eta irudiak egitea. Hone-la mintzatu zen apaiz maisua: Sevillara joan aurretik, Jauregi Salazar Antoniok idatzita utzi du Antonio izeneko beltz bat daukala 500 pisuren baliokoa, eta diru hori errosarioko Amari aldare bat egiteko eskaintza eginga daukala; orain bertan kontatzeko 200 pisurerekin.

Gaurko begiekin ikusita harri-garria eta negargarria iruditzen bazaigu ere, ordukoak ez ziren non-bait iritzi horretakoak, eta ez zuten guk bezala ikusten.

Orain berriro, Jose Antonio Azpiatzuk gai honi buruz liburu bat argitaratu du. Horrela ezagutzen ditugu Bergarako zenbait jopu, nagusi eta merkatari bat edo beste ere bai; horien artean, Ameriketara Bergarako izen haundikoak ziren guraize eta labainak erdialdeko nazioetan saltzen zituena, eta antzuolar beste bat ere Londresera itsasontzia "pastelakin" (pintura moduko bat) jopu beltzen truke bidali eta gaizki atera zitzaiona.

Bergaran, 1574. urtean Ondarzar Juanek 36 urteko Kristobal jopua aske utzi zuen, eta Galarzar Katalinak 20ko beltza, Gabriel Galarza (nagusiaren abizenarekin) ere bai.

Garai haietako testamentu askotan dirua uzten da moroen menpe zeuden hemengo herrialdeetako mirabeak askatzeko. B

## Emakumeen txokolatada

Egun bateko atzerapenarekin, herriko hainbat emakumek **Emakumearen eguna** ospatu zuten astelehenean Antxonin. Udaleko Ongizate Zerbitzuak eta HHI-EPA zentruak, iaz bezala, txokolatada antolatu zuten beraientzat Antxonin. Antolatu ziren ikastaroetan parte hartzen duten 40 bat emakume bildu ziren bertan. Txokolatea hartu ondoren berehala hasi ziren dantzan soinua, panderoa eta kitarraren doinuekin. Merienda alaitsua astelehenean egin zutena...



## Argazkilarien bilera


**Euskal Argazkilarien Federazioak** urteroko bilera egin zuen zapatuan Bergaran. Kultur Etxean izandako bileran 40 lagun izan ziren eta, ostean, bisita gidatua egin zuten herrian Xabier Aranburu udal museologoaren eskutik. Bazkaria Pertxa elkartearen egin zuten eta bertan Federazioak **Luis Irisarri** eibartar argazkilaria beterranoari merezitako omenaldia eskaini zion. Era berean, iazko **Argizaiola** lehiaketako sariak banatu ziren; Barakaldoko **Alejandro Garaik** jaso zuen lehen saria eta **Juan Armentia, Javier De la Flor** (biak bilbotarrak) eta **Benito Canterok** akzesitu bana eskuratatu zuten. Argazki onenekin antolatutako erakusketa apirilaren 1etik 26ra izango da ikusgai Bergaran.

## Bertso afaria Osintxun

**San Emeterio eta San Zeledonio** ospatzeko bertso afaria izan zen zapatuan Osintxun. Guztira, 78 lagun bildu ziren Txuringo jatetxean eta **Sebastian Lizasok eta Maialen Lujanbiok** bertso bikainak eskaini zituzten afalostean. **Jo ta su** trikitilariak ere giroa alaitu zuten eta jendeak primeran pasatu zuten. Aspaldiko partez, **Amaia Agirre eta Juantxo Urbietak** dantzari ohiak dantza sueltoan aritu ziren bertaratuen gozamenerako.

Bestalde, arratsaldean, mus eta partxis txapelketak jokatu ziren Osintxun: musean **Jose Urbietak eta Jose Arbelaitzek** osatutako bikoteak irabazi zuten eta partxisean **Iulen Aristimuño eta Mikel Larrañaga** izan ziren irabazleak.







Kafe hauek denak...  
FREXKOAK  
XIGORTU BERRIAK  
XUABEAK.....dira



Egunero herriz-herrri banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



**BAQUE KAFEA**  
XUABEA

# IRURAK PINTURAK O.E.

**ERA GUZTIETAKO LANAK - PAPER PINTATUAK**

**MOKETA ETA SINTASOLA - HAREA ZORROTADA**

**IZTUKU ESPONJATUA - IZTUKU FALTSUA**

**AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA**  
**TELEFONOA eta FAXA: 76 09 32**





Argazkian, Soralucek Bilbon aurkeztu duen makina. Beste makina batzuk egiteko eta tamainu handiko moldeak eta trokelak egiteko balio du.

# Makina-erreminta

## Bergara eta Antzuolako enpresak Bilbon

**Astelehenean zabaldu zen Bilbon Makina-Erremintaren Feria. Aurtengoa Feriaren 20. edizioa da eta badirudi makina-erremintaren sektorea momentu onean dagoela, orain dela lau urteko krisia gainditu ondoren. Euskal Herrian eta Gipuzkoan bereziki garrantzia handia duen sektoreko enpresak indartsu azaltzen dira XXI. mendearen atarian. Bergara eta Antzuolako hainbat enpresa ere Bilbon dira.**

**M**akina-Erramintaren Bienalak mundu osoko 32.000 profesional inguru bilduko ditu Bilbon eta erakustazokara hurbiltzen direnek 568 standetan banatutako 1.600 enpresen eskaintzak ezagutzeko aukera izango dute. Makina-erramintaren momentu onaren seinale, 1996ko azken edizioarekin konparatuz, enpresa gehiago etorri da Bilbora. Edizio honetan 26 herrialdek hartzen dute parte eta stand guztiak 8 pabiloitan banatu daude.

Datu ekonomikoak ere adierazgarriak dira: Estatuan, makina-erramintaren sektoreko ekoizpena 119,300 milioi pezetakoa izan zen joan zen urtean, 1996 urtearekiko %17ko hazkundera eman zelarik. Esportazioek berebiziko garrantzia izan zuten, 74.000 milioi pe-

zeta suposatu zutelako (96an baino %15 gehiago). Mundu osoko herrialde esportatzaileen rankingean Espainia zazpigarren tokian dago. Esportazio gehienak Alemania, Estatu Batuak, Britaina Handia eta Frantziara bideratzen dira.

Sektore honen egoera indartsuan Euskal Herriak zerikusi handia dauka. Euskal Autonomi Elkartearen estatu mailako produkzio osoaren %78 egiten da eta herrialdeei begiratuta, Gipuzkoaren lidergoa nabaria da. Produkzio osoaren %77 Gipuzkoan egiten da; Araban %12 eta Bizkaian, berriz, %11.

Bilboko Ferian sektorean gertatzen ari diren aurrerapenak ezagutzeko aukera dago. Teknologiaren eskaparate erraldoi honetan guztiok beste enpresa batzuekin dituzten harremanak sendo-

tu, akordio berriak lortu eta, azken batean, egiten ari diren lana ezagutzera ematea bilatzen dute. Bergara eta Antzuolako hainbat enpresak ere euren produktuak erakutsi nahi izan dituzte Bilbon.



#### Soraluce: 53 tonako makina

Soraluce kooperatibak FR modelo-ko makina aurkeztu du Bienalean. Aipatutako makina Estatuan erakusten den lehen aldia da. Hamar metro luze ditu, 53 tonako pisua eta beste makina batzuk egiteko eta tamainu handiko moldeak eta trokelak egiteko balio du. Dagoeneko, 80 bat makina saldu dituzte. Soraluceren bezeroen artean, besteak beste, Mercedes Benz, Ford, Miele, ABB trenak edota Beasaingo Mendiola aurkitzen dira. Makinak 120 milioi pezeta balio du, nahiz eta prezioan gorabeherak izan akzesorioen arabera. Felix Arizaga Soraluceko zuzendari komertzialaren hitzetan, "guk sortutako makina da eta orain zortzi urte hasi ginen montatzen. Orain arte erantzun ona jaso du eta feriarren lehendabiziko egunean ere makina bat saldu genuen. Makina preziatua da merkatuan, bezeroari malgutasun handia ematen diolako, makinarekin oso produktu ezberdinak egin daitezkeelako". Soraluceren produkzioa nagusiki esportaziora zuzenduta dago. Gaur egun %92 esportatzen dute eta Arizagaren hitzetan, "makina erramintaren sektorean munduan izan den krisirik handiena jasan genuen orain dela lau urte, baina orain momentu onean gaude eta etorkizuna itxaropentsua da".

Goiko argazkian Juan Carlos Zengotitabengoa (ezkerrean) Balzers-en produktuei buruzko azalpenak ematen. Eskuineko orrialdean, Iñaki Alberdi Orniko zuzendari komertziala. Behean Jose Antonio Agirrebeña, Tecnosistem-ek Feriar jarritako standean.

**Makina-Erramintaren Bienalak mundu osoko 32.000 profesional inguru bilduko ditu Bilbon. Guztira, 1.600 enpresa ordezkaturata daude**

#### Orni: errobot makina

Iñaki Alberdi Orniko zuzendari komertzialak bezeroekin harremanetan jartzeko feria eskaparate egokia dela uste du: "hainbat enpresak, dituzten zailtasunak gainditzeko, soluzio interesgarriak topatu ditzakete horrelako feria batean. Hemengo eskaintza izugarria da". Nobedade modura, Ornik errobot makina baten aplikazioa eroin du Bilbora. Alberdik azaltzen digunez, "ikusgai jarri dugun errobotaren aplikazioan pieza mugitu beharrean, erraminta mugitzen da. Pieza handi baterako aplikazioa jarri dugu, baina aukera gehiago ematen ditu. Oraindik ez dauka erabilpen konkreturik halako eroserendako dela esateko. Aplikazio konkretuak egiterakoan enpresa bakoitzak dituen beharretarako egokitu ahal izango da". Ferian bezeroekin biltzeko aukera dago: "bezeroak orohar piezak bukatzen dituztenak dira eta ferian edozein zalantza edo egin daitezkeen hobekuntzak aztertu daitezke elkarlanean. Aurten feria animatua dago gainera". Merkatuari dagokionez, Euskal Herrian eta Estatu mailan lan egiten du Ornik eta esportazioak (%40tik gorakoa) Estatu Batuetara, Portugalera, Frantziara edota Hegoamerikara bidertzen dituzte.

#### Tecnosistem: elektroerosioa

Amilagako Tecnosistem enpresak bi linea lantzen ditu: tresneria eta akzesorioak alde batetik eta bigarren eskuko elektroerosio-ko makinak salmenta Tecnosistem-eko salmentak Euskadi mailakoak dira gehienbat (%70) eta Estatuan ere egiten du lan. Jose Antonio Agirrebeñaren hitzetan, "elektroerosio-ko makinek behar bezala lan egiteko behar duten produktuak (grafitoa, kobrea...) saltzen ditugu, baina gero eta gehiago ari gara tresneria arloan sartzen. Makinek gero eta automatizazio haundiagoa daukate eta automatizazio maila horretan Alemaniatik ekarritako errobotizatutako makina batzuk saltzen ditugu. Enpresek kentzen dituzten elektroerosio-ko makina zaharrak ere errekuperatu eta eguneratzen ditugu". Urtetik urtera produktu berriak lantzeko ahaleginetan, elektroerosio-ko haridun makina aurkezten dute Bilbon. Agirrebeñak dioskunez, "piezak hariar

mozten dituen makina da; makina berezi hauek zuloak egiteko dira bakarririk. Makinak kanpotik ekartzen ditugu eta gure marka eta gure ekipamendurekin saltzen ditugu. Helburua elektroerosioko makinei ahalik eta produktibitate gehien ateratzea litzateke eta goi mailako teknologia erabiltzen dugu. Ferian egotea epe erdi-luzera egindako inbertsioa da, bezeroei gure produktuak erakusteko aukera ona da”.

### Balzers-Elay: estaldurak

Antzuolako Balzers-Elay erraminten (trokelak, moldeak) errendimendua optimizatzeko estaldurak egiten ditu. Helburua erramintek iraupen handiagoa izatea eta abiadura handiagoz lan egitea litzateke, fabrikazio kostuak gutxituz eta piezen kalitatea hobetuz. Juan Carlos Zengotitabengoa salmenta buruaren hitzetan, “ferian izateko arrazoiak salmentak handitu eta bezero berrikin harremanak izatea litzateke. Era berean, horrelako feria batean aukera dago gaur egungo egoera ekonomikoa zein den jakin eta etorkizuna nolakoa izango den antzemateko, egun gutxitan herrialde ezberdinetako, tamainu dife-



### *Orain dela lau urteko krisia gainditu ondoren, enpresariak bat datoz makina-erramintaren sektorea momentu onean dagoela esatean*

renteetako eta hainbat sektoretako enpresen iritziak jasotzen baitira”. Balzers-Elayk mekanizazioko azken joerak aurkeztu ditu Bilbon. Juan Carlosen arabera, “lehorrean egiten den mekanizatuak taladrinak eta olioia saihesteko aukera ematen du eta, beraz, ingurugiro baldintzak hobetu eta erreziklajeko gastuak gutxitzen dira. Titaniu nitrurorik oinarritutako bi estaldura aurkezten ditugu eta gure helburuak kostuak gutxitu, kalitatea hobetu eta konpetibitatea handitzea lirateke”.

### Goizper: esportazioa bultzatu

Goizper kooperatibak ere stand bat jarri du ferian. Bi produktu gama nagusi ditu Goizperrek: alde batetik, Matabi izeneko pulberizadoreak eta, bestetik, Goizper izeneko enbrageak, balaztak (frenoak) eta prentsa makinenzako balazta-enbrageak. Goizperreko bezeroetako batzuk ere (Fagor Arrasate, Soraluze bera) ferian dira. Goizperren salmentak %30 igo ziren iaz eta esportazioak bultzada handia izan du. Besteak beste, Estatu Batuak, Japon, Korea, Kanada, Brasil edo Indian saltzen ditu Goizperrek bere produktuak. Esportazioari esker salmentak %35 igo dira azken hiru urteetan. Goizperreko Komertzial arloko arduraduna den Jose Luis Arregik esaten digun moduan, “prentsa eta gilotina makinenzako haizez mugitutako bi freno-enbrage berri aurkeztu ditugu. Era berean, olio mugitutako freno-enbrage berria kontrol sistema berezi batekin ekarri dugu eta nobedade interesgarria dela uste dugu. Dena den, negozioa baino gehiago, prestigio aldetik dauka inportantzia guretako ferriak, baina beti egiten dugu kontaktu interesgarriren bat” Arregiren ustetan, “Euskal Herrian eta Estatuan egiten diren produktuak fama hartzen ari dira atzerrian eta momentu hau aprobetxatu beharrean gaude”. B



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

09:00: Aldoka Maldoka-Moskis  
10:00: La Juve-Artusamak  
11:00: Ezinleike-Manitou

La Juve  
Moskis  
Artusamak

### ZAPATUAN KANPOAN

11:30: Eri Sirimiri-Uve Bikoitza  
12:30: Jakina PT-Matxakategi  
16:00: FAC-Bayer  
17:00: Ufala-Amozkibar  
18:00: Etxagi-Azpeitxi Jatetxea  
19:00: Pagomendi-Bildurbarek

Matxakategi  
Eri Sirimiri  
Amozkibar  
FAC  
Pagomendi  
Azpeitxi

### DOMEKAN BARRUAN

09:30: Igandekoak-Poli Taberna  
10:30: Txipiron-Etengabe  
11:30: SLO-Guadalest  
12:30: MRW-Indargorri  
16:00: Shaktale-Agirrebeña Jatetxea  
17:00: Gazteak-Ganbara Ari Ari  
18:00: Errotagain-Agiñaspi  
19:00: MongatxurraK-Bar Canalejas  
20:00: OH Zerezos-A Ze Flaxa Etxagi

Etengabe  
Poli Taberna  
Igandekoak  
SLO  
Ganb. Ari Ari  
Agiñaspi  
Canalejas  
A Ze Flaxa  
Mongatxurrak

### DOMEKAN KANPOAN

11:30: La Peña DML-Erdibiterak  
12:30: Usoa-Patatus  
16:00: Autoberezi-Komando Piperrak

Usoa  
Erdibiterak  
Gazteak

## argi!

### Moskisi 5 puntu kendu diote

Moskis taldeari 5 puntu kentzea erabaki du Antolaketa batzordeak. Azkenareko ihardunaldian MRW eta Matxakategien arteko partidua arbitratzera ez ziren joan eta horregatik jaso dute zigorra.

## jokoz kanpo



German  
Balanzategi  
MRW

G. Zer moduz zabilzate?  
E. Erdipurdi gabiltza. Ez daukagu golak sartzen dituen aurrelaririk. Atzealdean nahiko ondo gabiltza, baina aurrean gaizki samar. Aurrelari golegile bat falta zaigu.  
G. Zer nolako maila dago 3. multzoan?  
E. Nahiko ona. Ondo pasatzera etortzen garenontzat maila egokia.  
G. Txapelketako zein aurrelari fitxatuko zenuke?  
E. Amozkibar taldeko "Alfonso", Rafael Moral.  
G. Zer postutan jokatzeko duzue?  
E. Atzealdean jokatzeko dut. Horrexegatik da gure taldearen arlorik indartsuena.  
G. Golik sartzen duzue?  
E. Bakarra sartu dut.  
G. Gehiago sartzeko itxaropenik?  
E. Gaztetan, BKEn aurrelari postuan jokatzeko nuen eta golak sartzen nituen, baina orain adinarekin...  
G. Ligako jokalaririk onena?  
E. Roberto Carlos.  
G. Zeinek irabaziko du Liga?  
E. Barcelonak  
G. Eta mundiala?  
E. Espainiak, Brasilek edo Italiak.

## gora eta behera



### Pagomendi

Joan zen domekan Pagomendi eta Ortzik angiozartarren arteko derbia jokatu zuten. Pagomendiko gaztetasunak Ortzikoan beterania gainditu zuen. Azpimarratzekoa da, era berean, Jakina PTko Eneko Beistegi eta Manitouko Isi Blancok launa gol sartu dituztela.



### Ganbara Nekrofilikos

Ganbara Nekrofilikos taldekoak ez ziren agertu Komando Piperraken aurka jokatu behar zuten partidura. Gainera, Indargorri eta Autobereziren arteko partidua arbitratu behar zuten eta ez ziren agertu. Partidu hori ikusle batzuek arbitratu zuten.

## emaitzak

Jauja OH Zerezos-Mongatxurrak	3-1
Arloteak/Oilagorra-Bar Canalejas	0-3
Ortzi-Pagomendi	2-3
Bildurbarek Opel/Lam-Etxagi	4-10
Azpeitxi Jatetxea-Errotagain	2-1
Agiñaspi-A Ze Flaxa Etxagi	1-4
Bayer-Amozkibar	5-1
Manitou-FAC	8-2
Guadalest-Ezinleike	3-2
Artusamak-SLO	3-1
Agirrebeña Jatetxea-La Juve	8-3
Shaktale-Ufala	10-4
Komando Piperrak-Bar Ganbara	3-4
Indargorri-Autoberezi	3-4
Uve Bikoitza-MRW	4-1
Matxakategi-Eri Sirimiri	3-1
Moskis-Jakina Patxaran Team	5-4
Amilotx-Patatus	2-1
Polideportivo Taberna-Usoa	3-3
Etengabe-La Peña DML	4-1
Ganbara Ari Ari-Igandekoak	6-2

## sailkapenak

### Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	45	19
2. Mongatxurrak	42	20
3. Pagomendi	35	20
4. Bar Canalejas	35	19
5. Errotagain	31	19
6. Azpeitxi Jatetxea	29	20
7. Etxagi	27	20
8. Jauja OH Zerezos	24	20
9. Bildurbarek Opel/Lam	24	19
10. Ortzi	18	19
11. Agiñaspi	15	19
12. Arloteak/Oilagorra	7	20

### Bigarren maila

	P	J
1. Manitou	27	9
2. Shaktale	22	9
3. Artusamak	17	9
4. Bayer	15	9
5. Guadalest	12	9
6. FAC	12	9
7. SLO	12	9
8. Agirrebeña Jatetxea	10	9
9. La Juve	7	9
10. Ezinleike	6	9
11. Amozkibar	5	9
12. Ufala	2	9

### Hirugarren maila

	P	J
1. Autoberezi	18	8
2. Bar Ganbara	15	9
3. Uve Bikoitza	15	8
4. Moskis	13	9
5. Matxakategi	12	8
6. MRW	12	8
7. Indargorri	12	8
8. Jakina Patxaran Team	10	8
9. Eri Sirimiri	9	8
10. Komando Piperrak	9	8
11. Aldoka Maldoka	3	8

### Laugarren maila

	P	J
1. Ganbara Ari Ari	18	8
2. Etengabe	18	8
3. Usoa	16	8
4. Txipiron	15	7
5. Polideportivo Taberna	13	8
6. Amilotx	12	8
7. Erdibiterak	12	6
8. Igandekoak	10	7
9. La Peña DML	7	8
10. Gazteak	3	8
11. Patatus	-3	8

# ESKOLA KIROLA

## IKUSI ETA IKASI

### BEROKETA LANAK:

#### Prestakuntza fisikoa:

#### Bihotz-arnasketa sistemaren prestaketa

beroketarekin, bihotz taupaden maiztasuna gehitzeaz gain, odol jarria eta irrigazioa suspertzea lortzen da. Honen eraginez, ehunek, elikagai kopuru handiagoak jasotzen dituzte, hondakinak eraberritu eta giharrak errekuperatzeko ahalmena bizkortuz.

KIROLA EUSKARAZ FITXAK



## TXINPARTAK

### Arrakasta handia izan zuten benjaminendako igeriketa jokuek

Joan zen zapatu goizean benjamin mailako ikasleek erantzun ezin hobea eman zioten igeriketa jokuei. Guztira 85 lagun elkartu ziren igeriketa jokua egiteko.

### Udaberriko futbol txapelketa

Gipuzkoako txapelketa jokatzeo sailkatu ez diren infantil mailako futbol taldeek Udaberriko torneo hasiko dute asteburu honetan. Deba Garaiko taldeek parte hartuko dute eta ekainera arte iraungo du. Txapelketa neskek eta mutilek jokatuko dute.



### Aranzadi 13 alebinak. Neskak

Aranzadi 13 alebin mailako taldea Itziar Lete, Maialen Alkorta, Maialen Hernandez, Aitziber Plazaola, Haize Bolinaga, Miren Berraondo, Zoiartze Heras, Maddi Iñarra eta Olatz Larrañagak osatzen dute. Futboleko, eskubaloian, atletismoan, pilotan eta saskibaloian jokatu dute. Gehien gustatzen zaien kirola futbola da eta Realzale amorratuak dira. Gica Craioveanu dute jokalaririk gogokoena. Saskibaloia asko gustatu ez arren, irabazteko asmoa dutela adierazi digute.



### Antzuolako alebinak. Neskak

Antzuolako alebin mailako nesken taldea Ariane Vargas, Maialen Toledo, Usue Arregi, Usue Alberdi, Aintzane Jauregi, Amaia Cabrera, Agurtzane Mujika, Ana Peñalba, Garazi Larrea eta Leticia Cuevasek osatzen dute. Entrenatzailea Santos Jauregi da. Orain arte denetik egin dutela esan digute, baina gehien gustatzen zaizkien kirolak futbola eta atletismoa direla. Saskibaloia txapelketa irabazteko itzaropena ei dute eta taldeko jokalaririk onena Ana Peñalba dela diote. Ikasteko kirolik zailena futbola dela uste dute, "hankarekin oso zaila baita baloia menderatzera".

## KARTELDEGIA

### FUTBOLA

Guztiak zapatuan, Ipintzan.

#### Infantilak / Mutilak

**10:15:** Ipintza-Kurtzeberri.

**11:45:** Aranzadi-M Lagundia.

#### Infantilak / Neskak

**09:15:** Ipintza-Elgeta.

**09:15:** Aranzadi-M Lagundia.

### SASKIBALOIA

Guztiak zapatuan, M Lagundian.

#### Alebinak / Mutilak

**09:30:** Aranzadi 7-Aranzadi 9.

**09:30:** San Martin-M Lagundia A.

**10:30:** M LagundiaB-Antzuola.

**10:30:** Aranzadi 12-Aranzadi 7.

**11:15:** Aranzadi 8-Aranzadi 10.

#### Alebinak / Neskak

**11:15:** Aranzadi 14-Antzuola.

**12:00:** Aranzadi 13-Antzuola.

**12:00:** Aranzadi 14-San Martin.

### ARETO FUTBOLA

Guztiak zapatuan, M Altunan.

#### Kadeteak

**12:00:** Aranzadi 203-M Lagundia

**12:00:** Aranzadi 201-Aranzadi 202.

### PILOTA

#### Benjaminak

Zapatuan, Udal Pilotalekuan.

**10:00:** Aranzadi 1, Aranzadi 3, M Lagundia A.

**11:00:** Aranzadi 5, Aranzadi 4, M Lagundia B.

**12:00:** Aranzadi 2, Aranzadi 6, San Martin, Elgeta.

#### Alebinak

Antzuolako pilotalekuan. Bergararik autobusa arratsaldeko 15:15etan irtengo da Udal Pilotalekutik.

#### Infantilak

#### Deba bailarako txapelketa.

Bergarako Udal Pilotalekuan arratsaldeko 15:30etan.

Ander Cabezas-Mikel Leturia, Manex Altuna-Beniat Iñarraren kontra.

Endika Iturbe-Andoitz Peña,

Asier Larrañaga-Ander

Gabilondoren kontra.

## Futbola



BKEko talde nagusiak bana berdindu zuen Eibarren Urki taldearen

kontra. Eibartarrek partidua hasi eta 28. segunduan gola sartu zuten, baina lehen zatia amaitu aurretik, Errastik berdinketa lortu zuten penaltiz. Lehen zatian Nietoren mutilek ondo jokatu zuten baina bigarrenean nahiko larri ibili ziren.

Asteburu honetan 3. tokiari dagoen Zumaiako taldea izango da Agorrosinen. Partidu hori irabaztea garrantzitsua da mailaz igo ahal izateko. Bigarren mailako kadeteek, berriz, 2-1 irabazi zioten Mutrikuri eta igoera faseko lehenengo postuan daude. Lehen mailako kadeteek bukatu dute liga eta mailari eutsi egingo diote. 2. mailako jubenilek 3-2 irabazi zioten Arrasateri.

## Eskubaloia



BKEko eskubaloi talde nagusiak 26 eta 24 irabazi zion Elgoibarri.

Emaitza horrekin Lijoren mutilak zuzenean mailaz jeisteko postuak atzean laga dituzte. Izan ere zuzenean azkenengo biak mailaz jeisten dira eta orain atzetik hasita 3. postuan dira. Asteburu honetan ligako azken ihardunaldia jokatu dute azkenengo postuan dagoen Lezoren aurka. Partidua zaila izango da lezotarra oso beteranoak baitira. Halere Lijok partidua irabaztea espero du bere mutilak joko aldetik oso ondo baitaude azkenengo boladan.

Partidua irabazi ezkeror atzetik hasita 3. postuan sailkatuko dira seguruenik. Horrela mailaz jeisteko aukera guztiak alde batera lagako lituzkete.

## Saskibaloia



BKE-Bolsos Bergara taldeak 7 punturengatik irabazi zion azkenengo postuan dagoen Rioja David taldeari. Conderen mutilek partidua ongi egin zuten, are hobe kontutan izaten badugu Labegaraietako kiroldegian saskiak gaizki daudela eta Arrasaten jokatu behar izan zutela. Bergararrak 16 punturekin jarri dira eta oraingorik badute igotzeko aukerarik.

Bestalde, Junior mailako taldea bikain ari da eta Askatuak taldeari sekulako egurra eman zion 16 punturengatik irabazi baitzion. Emaitza horrekin Alex Familiarren mutilek lidergoan jarraitzen dute. Kadete mutilek Arrasateren aurkako derbia irabazi egin zuten eta azkenengo postua Zerrajeroei laga diete.

Bestalde, Junior mailako taldea bikain ari da eta Askatuak taldeari sekulako egurra eman zion 16 punturengatik irabazi baitzion. Emaitza horrekin Alex Familiarren mutilek lidergoan jarraitzen dute. Kadete mutilek Arrasateren aurkako derbia irabazi egin zuten eta azkenengo postua Zerrajeroei laga diete.

## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

**Bergara-Zumarraga**

Lehen maila erregionala. Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Bergara-Burumendi**

Lehen maila jubenilak. Igandea. 11:30. Ipintza.

## NESKEN IV. FUTBITO

## TXAPELKETA

Zapatua. M. Altuna institutua.

**Nifis-Nahikari**

Arb.: Potzu T.Z.. 16:00.

**Zutaz Pentsatzen-Azkenak**

Arb.: Gu Geu. 16:00.

**Potzu T. Z.-Gu Geu**

Arb.: Zutaz Pentsatzen. 17:00.

**The Road Island-Blue Star**

Arb.: Nifis. 17:00.

## PILOTA

Partidu guztiak Udal Pilotalekuan

## FORU ALDUNDIKO KOPA

**Bergara-Goierri**

Bigarren mailako kadeteak. Eguakitza. 22:00.

**Bergara-Ikasberri**

Seniorrak. Eguakitza. 22:00.

**Bergara-Elgoibar**

Lehen mailako kadeteak. Domeka. 11:00.

**Bergara-Elgoibar**

Jubenilak. Domeka. 11:00.

## EUSKADIKO LIGA

**Bergara-Añorga**

Juniorrak binaka. Eguakitza. 22:00.

**Bergara-San Cosme**

Seniorrak binaka. Domeka. 11:00.

## PROFESIONALAK

Domekan, 16:30etan.

- Etxaniz-Zezeaga Alustiza-Erandonea
- Ariznabarreta-Oliden Berasaluze VIII-Taberna
- Telletxea, Rairen kontra.

## AITOR DELARIBERETTE / Snowboardzalea "Errekuperatzea da inportanteena"

**Otsailaren 14an izandako lesioaren ondorioz, Aitor Delariberettek ezin izango du aurten iazko emaitza bikainak errepikatu. Belauneko ebakuntza egin behar izan zioten eta laister errekupezioari ekingo dio.**

**G.** Zela hautsi zenuen belauna?

**E.** Estatu mailako Ballantines Snowboard Zirkuituko bigarren proban izan zen, La Masellan (Katalunian). Jeitsieran jausi, hainbat metro irrist egin eta pinu baten kontra jo nuen belau-narekin. Kolpe haundia hartu nuen eta belauna hautsi zitzaidan ia toki guztietatik. Otsailaren 18an Donostian operatu ninduten eta luzerako daukat. Oraingoz makuluekin nabil eta

hemendik pare bat astera errehabilitazioarekin hasiko naiz.

**G.** Denboraldiari agur...

**E.** Bai, baina hobe buruari bueltak ez ematea, ez dauka erremediarik eta.

**G.** Hala ere, lesionatu aurretik probaren batean izan zinen?

**E.** Bai, Chamrousse, Frantzian, FIS federazioak antolatutako munduko junior txapelketan izan nintzen urtarrilaren azkenetan; lehen saioan jausi egin nintzen eta bigarrenean 25. postuan heldu nintzen. Azkenean 33. postuan sailkatu nintzen. Bestalde, Ballantines zirkuituko lehen proban, gigantean 10. eta paraleloan 8. izan nintzen.

**G.** Neguko olimpiadak

jarraitu?

**E.** Ez asko, proba gehienak ordu txikietan izaten ziren telebistatik ikusteko.

**G.** Karatea ala taula nahiago?

**E.** Taulan aritzea nahiago dut, dibertigarriagoa delako. Gainera neguan bakarrik dago ibiltzeko aukera eta karatea, berriz, urte osoan egin daiteke.





200 bat emakume eta gizonezko hartuko dute parte zapatuko aerobitonean.

## Aerobiton proba zapatuan Labegaraietako kiroldegian Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatu dute

**Bergarako** Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatuta zapatuan arratsaldeko 17:00etatik aurrera aerobiton proba jokatu da Labegaraietako kiroldegian. Aerobitonak 2 ordu inguru iraungo ditu eta denbora horretan partehartzaileek monitoreek prestatutako koreografiak jarraitu behar dituzte. Probaren hasieran beroketa ariketak egingo dituzte eta aurrera egin ahala ariketen erritmoa azkartzen joango da. Taula gainean izango diren monitore guztiak bergararrak izango dira eta Bolu gimnasiotik Idoia Moreno, Amaia Carrillo eta Oihana Iturralde

aritu dira. Giartzutik, berri, Gemma Otaño, Carmen Palacin eta Ana Valor izango dira monitoreak.

Aurtengoa hirugarren ekitaldia da eta azkenegoa 200 lagun inguru aritu ziren. Zapatuko probarako partehartzaile kopurua gehitzea espero dute antolatzaileek.

### Emakume eta gizonezkoentzat

Proban emakumezko eta gizonezkoek parte hartu dezakete eta fisikoki prestatua egon behar den arren, ez da derrigorrezkoa puntu-puntu egotea. Izan ere, bakoitzak bere erritmor


egokitu ditzake monitoreek 20 minuturo aldatzen dituzten koreografiak. Parte hartzeko Kutxan 1.000 PTA sartu behar dira edo bestela, proba hasi baino lehen izena eman.

Parte hartzeko ez ezik, ikusteko ere atsegina da aerobitona, ariketa guztiak musikarekin baitoaz. Iaz ikusleek 300 PTA ordaindu behar izan zituzten eta aurren sarrera doan izango da.

Proban parte hartzen duten guztien artean Jauja, Xamartin eta Aisor kirol dende emandako opariak banatu dituzte. Bestalde, Aviak emandako 200 kamisetak banatu dituzte. B

## Euskal Ligako pilota partidu garrantzitsuak


**Bergara** Kirol Elkarteke pilota sailak aste-buru honetan partidu garrantzitsuak biziko ditu Euskadiko Ligako txapelketako finalerdien itzulerako partiduak jokatuko baitira. Lehenengo partidua junior mailako Aranzeta eta Gutierrezek Añorgakoen aurka jokatuko dutena izango da. Joaneko partiduan bergararrek 22-11 irabazi zuten eta 12 tanto eginda finalerako sailkatuko dira. Halere, Reyes Azkoitia entrenatzaileak esan digunez, bi pilotariak irabaztera irten-go dira etxeko jarraitzaileei partidu ona eskaintzeko. Domekan senior binakako itzulerako finalerdia jokatuko da eta Muramendiaraz eta Idiakez zailago izango dute. Seniorrek Logroñoko San Cosmeren aurka jokatuko dute eta joaneko partiduan 22 eta 16 galdu zuten. Errioxarren aldetik Gabarri anaiak jokatuko dute eta, batez ere, atzelariarekin izan behar dela kontu esan digu Reyes Azkoitiak. Partidua irabazteko Bergarako zaletuen animoak eskatu ditu Reyes Azkoitiak. B



Irizar 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

## GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 76 41 50 BERGARA

## AGIRREBEÑA

oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria

Urteaga 5 ☎ 76 18 29

**1. ETXEBIZITZAK**

**Saldu**

Pisua amueblatua salgai herri erdian. 76 06 64.

Pisua salgai A. Fleming kalean. 76 56 99.

Barrenkalean apartamentua salgai. 76 56 41/76 04 69.

Donostiako Alde Zaharrean pisua salgai. 43 19 22.

**Errentan hartzeko**

Pisua alokairuan hartuko nuke. 76 11 12.

Pisua hartuko nuke alokairuan. 76 41 16.

Baserri baten bila gabiltza bertan bizitzeko. 907 48 07 52.

**2. GARAJEAK**

**Saldu**

Garajea salgai Bolun. 76 47 99.

Garajea salgai Masterrekan. 78 36 65 (20:00-22:00).

Garajea salgai Arane-

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!**

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. AUTOAK/MOTOAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktuak  
Deiak  
Bestelakoak

Uberan 144 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Biltegi edo lantegi txiki baterako egokia. 79 05 63.

San Lorentzoko industrialdean 200 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. 76 35 09.

**Errentan hartzeko**

Prezio onean, lokala alokairuan hartuko nuke. Osintxun. 76 08 21.

**4. LANA**

**Eskaintzak**

Andre batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketarako egingo lituzke. 76 00 90.

Neska batek astebukeretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. 76 56 66.

Klinika auxiliari batek gaisoak edo helduak zaintzen ditu. Deitu 76 64 47 telefonora.

Neska tituludunak administratibo lanak egingo lituzke. 907 94 06 67.

Neska batek orduka lan egingo luke. Deitu 939 472584 telefonora.

rekan (2 plaza itxita). 76 06 96.

Garajea salgai Martokon. 76 35 50.

Garajea salgai Ibargarain. Milioi bat. Deitu 762161 telefonora.

Garajea salgai San Antonion. 76 15 37. Kotxe txiki baterako garajea salgai Ibargarai kalean. 650.000 pezeta. 76 57 93.

Garajea salgai Torreku. 950.000 pezeta. 76 19 72.

**Errentan emateko**

Garaje bikoitza alokairuan Torrekoan. Deitu 763032 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarai 37an. Deitu 763376 telefonora.

Garajea alokairuan Ibargarain. Deitu 76 16 38 telefonora.

**Errentan hartzeko**

Garajea/ganbara alokairuan genuke. Deitu 7650 00 telefonora.

Garajea alokatuko nuke. 7605 17.

Burdiñate inguruan garajea errentan hartuko nuke. 76 70 63.

**3. LOKALAK**

**Saldu**

Lokala salgai edo alokairuan Masterrekan. 150m<sup>2</sup>. 76 1189.

Lokala salgai A. Fleming. Deitu 76 00 84/76 35 83 telefonoetara.

Lokal komertziala salgai Martokan. 76 25 67.

**Erosi**

Zona industrialean 70 m<sup>2</sup> inguruko lokala erosiko nuke. 76 29 95.

**Errentan emateko**

Bi pisuko lokala alokairuan San Pedron. 150 m<sup>2</sup>. 76 11 64.

Lau gelako bulegoa alokairuan Bolun (osorik edo gelaka). 76 58 91.

## Haurdun bazaude LAURA da zure jantzidenda.

Udaberriko moda gaztea jartzeko,  
neurria ez da izango arazoa.

Tailaje zabalena dugu.

# Laura



Erdiko kale 30  
ARRASATE  
Tf. 79 05 80



Neska batek zaharrak zaindu (gauzez ere bai) eta garbiketa lanak egingo lituzke (orduka). 76 58 10 (Maria Jesus).

#### Eskaerak

Antzuolan, bi gaiso edadetu zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da (legun osoz). 76.61 85.

Etxeko lanetarako eta umeak zaintzeko emakumea behar da. 76 15 24.

Neska behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 76 48 76.

Bi mutiko eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da Antzuolan. 78 70 50 (18:00etatik 20:00etara).

#### 5. IRAKASKUNTZA

##### Eskaintzak

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 17 18 (Jesus).

OHO klaseak Antzuolan. 78 71 32.

Ingeles klaseak ematen ditut. 76 53 88 (Rosa).

Mate, fisika eta kimika

klaseak ematen ditut LOGSE 2 arte. 76 24 31.

Mate klaseak ematen ditut. 76 03 72 (Nerea).

Lizentziatu batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. 76 70 40.

Fisika, informatika eta mate klaseak. 76 46 03.

OHO eta BBB klaseak ematen dira. Deitu 76 33 26 telefonora.

Pintura eta marrazki klaseak ematen dira. 76 03 83.

Majisteritza ikasle batek LH eta DBHko klaseak ematen ditu. 76 11 81 (Ainara).

#### Eskaerak

Enpresaritza zientziarako irakaslea behar da matematika eta matematika finantzieroa irakasteko. Deitu 76 38 28 telefonora.

Denda bateko erreparatzaile egiteko furgoneta duen mutil bat behar da. 76 10 71.

Neska behara da bi edadetu zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 76 47 99 telefonora.

#### 6. AUTOAK/MOTOAK

##### Saldu

Aprilia rally motorra (49 c.c.) salgai. 76 62 24.

Audi 90 kotxea salgai. 1988koa. 76 35 09.

Ford Escort kotxea egoera onean salgai. ZA-F. 76 09 85.

Renault-21 GTS kotxea salgai. Oso egoera onean, lau urte t' erdi, 68.000 Km. 76 30 12.

#### 7. ANIMALIAK

##### Saldu/Eman

Lau txakurkuma oparitzen ditut. 76 55 52.

Setter ingeles arrazako lau txakurkume salgai. Abenduaren 19an jaioak. 76 51 38 (Joseba).

#### 8. DENETARIK

##### Saldu

Logela berria salgai: bi ohe, ikasketa mahaia, liburu apalak, altzari txikiak. 76 43 37.

Karro-denda salgai.

76 59 56 (gauzez).

Denda baterako moduko apala, mostradorea, euskarria eta makina-errejistradora prezio onean salgai. 76 25 67.

Gasteizera egunero joan-etorria egiteko, kotxea konpartitzeko jendea behar da. Deitu 76 12 97 telefonora (Antonia).

Gazteentzako altzariak saltzen ditut. 20.000 pezeta. 76 30 93.

Altzariak prezio onean salgai. 76 30 93.

Frigorifikoa salgai, 125 v. 50 litroko termo elektrikoa. 76 47 71.


Belaunetarainoko katiuskak saltzen ditut. 76 53 16.

Soinua saltzen dut. Oso egoera onean. 76 56 65.

Logela klasikoa salgai. 19 10 95 (Manoli).

Talde italiar bateko txirrindulari ekipoa eta Ronaldo izenarekin futbol kamiseta saltzen ditut. 76 47 82.

Katu siamesak salgai Hilabete t' erdi. 76 17 35.



## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

**Langai Udaletxean:** astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

#### ENPRESA-IKASKETETAN LIZENTZIATUA

- Nerbioi eskumaldeko aholkularitza baterako.
- Baldintzak**
- Graduatu osteko master edota ikastaroa.
- Ingelesa ezinbestekoa.
- Informatika-ezagutza erabiltzaile-mailan.
- Erref. 6746/2

#### ANALISTA PROGRAMATZAILEA

- Bilbo inguruan kokatutako enpresa baterako.
- Baldintzak**
- Gutxienez 5 urtez IBMren Main Frame-sen analista aritu izana.
- Cobol, Vsam eta DB2ren ezagutza altua.
- Urtebeteko kontratu laborala.
- Berehala hasteko.
- Erref. 6716/2

#### SUKALDEKO MONITOREA

- Bidasoa Behean kokatutako enpresa baterako.
- Baldintzak**
- Ezinbestekoa urtebeteko esperientzia antzeko lanposturen batea edo esperientzia handia sukaldean.
- Apirilean hasteko.
- Jende-taldeekiko harremanetarako gaitasuna.
- Erref. 6188/1

#### PEOI ESPEZIALISTA

- Durangaldeko enpresa baterako.
- Baldintzak**
- 6 hilabeteko esperientzia prentsan.
- Durangaldean bizi izatea.
- Erref. 6538/3

## LAN ESKAINTZA

# Jardun Elkarteak Enpresa diplomatua

behar du, egun erdiz.

Bere ardura, Berrigara eta Jarduneko diru kontuak eraman eta beste hainbat gestio lan egitea izango da.

Kurrikulumak aurkezteko azken eguna: martxoaren 23a.  
Tokia: Kartzela Zaharra.



Mikel Erentxun, Jam aretoan entsaiatzen

## "Pozik nago: diskoak kritika onak izan ditu"

**Mikel Erentxunek datorren astean ekingo die zuzeneko emanaldiei. Estatuan eta Ameriketara zehar eramango duen bira hasi aurretik Jam aretoan entsaiatzen aritu da aste honetan bere taldekideekin batera. Etenaldi batean, berarekin berba egin dugu.**

**G.** Euskaraz egingo dugu elkarrizketa?


**E.** Ez, ezin dizut erantzun. Emaztea euskaldunzaharra da eta semeak erdaraz baino hobeto egiten du euskaraz; nik semearekin batera ikasi nahi nuen baina, hitz batzuk esaten ditudan arren, elkarrizketa bat jarraitzeko adina ez dakit; hurrengo batean beharbada.

**G.** Zelatan aukeratu duzue Jam aretoa zuzeneko emanaldiak entsaiatzeko?

**E.** Donostian ez daukagu entsaiatzeko toki egokirik, nahiz eta orain dela bi urte Urrietako Saroben entsaiatu eta horrelakoetarako oso toki aproposa iruditu; oraingoan, ordea, nire agentek Bergarako aukera honi buruz hitz egin zidaten, bertan hainbat kontzertu antolatu dituztelako. Hasieran Txibisto zela pentsatu nuen, baina hura baino hobeto dago hau; oso gustora gabilta, bazkaldu ere bertan egiten dugu.

**G.** Datorren astean zuzeneko emanaldiei ekingo diezue.

**E.** Bai, Valentzian hasi eta Estatu osoan zehar arituko gara; Mexikora ere joango gara. Euskal Herrian, oraingoz, Iruñean joteko hitzartuta daukagu eta Donostiako Aste Nagusian ere izango gara, beharbada. Gipuzkoan, Donostian izan ezik, ez dugu inoiz jo; Bizkaian zehar, ostera, gehiago ibili gara. Gipuzkoa oso merkatu zaila da gure-



Jam aretoan egindako entsaioteko batean.

tzat. Zergatik? Agian, entzulegoak soinu konkretu batzuk, hau da, soinu gorrigoak eta euskaraz abesten duten taldeak entzuteko ohitura daukalako.

**G.** Nolako aretoetan ibiliko zarete?

**E.** Udara arte, 1.000 edo 2.000 lagunendako antzoki, klub, diskoteka eta horrelakoetan eta udan kiroldegi eta

horrelako toki zabaloetan. Nik nahiago nuke areto txikietan zehar ibiltzea, baina udan herrietako festetan eta jotzen dugu. Estatu hegoaldean batez ere.

**G.** Zein musikolariek lagunduko zaituzte zuzenekoetan?

**E.** Mitxel Longarón tolosarrak (bateria), Joserra Sanperena donostiarrak (teklatuak), Javier Pedreira madrildarrak (kitarra) eta Marcelo Fuentes argentinarrak (baxua). Mitxel eta Joserra lehen ere nirekin eta Duncan Dhu-rekin ibilitakoak dira. Javier Pedreira, beriz, Latino Diablo taldeko kidea da eta La Frontera-rekin aritutakoa da; Marcelo Fuentes, azkenik, Pedro Guerra, Mecano, Miguel Rios eta beste askorekin ibili da. Diskoa Landetako Du Manoir estudioan

grabatu eta Londonen nahastu eta bukatu genuen eta musiko ingelesekin grabatu dut, nahiz eta Joserrak ere parte hartu.

**Radiohead eta The Verve erit, gustatu zait. Nire musikan gustatu zait.**

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 76 53 12



**JAZMIN**  
Ileapaindegia

**IREKI BERRIA. GUSTATUKO ZAIZU.**

Espoloia 4, behea. BERGARA. Telefonoa: 76 58 80.

**G.** Zelako harrera izan du "Acrobatas" izeneko disko berri honek?

**E.** Oso pozik nago, merkaturatu berri, aurreko bi diskoak baino gehiago saltzen ari delako. Bestalde, oso kritika onak izan ditu.

**G.** Aurreko diskoak "El abrazo del herizo" izenekoak, ez zituen oso kritika onak izan.

**E.** Ez, eta salmentei dagokienez ere gauzak ez ziren oso ondo joan, horregatik beldur piskat baneukan hirugarren disko honekin. Nire ustez, aurrekoa disko ona zen, baina hau hobea da. Honetan aurrerapauso nabarmena eman dut, aurrekoekiko aldaketak nabariak direla uste dut: orain arte inoiz erabili ez ditudan programazioak, samplerrak e.a. erabili ditut. Poparen ildotik jarraitzen dut, baina Radiohead edo Everything but the girl taldeek eragina izan dute eta soinu moderno edo gaur egungoagoak landu ditut.

**G.** Zer musika entzuten duzu?

**E.** Radiohead eta The Verve batez ere; Pearl Jamen azkena ere izugarri gustatu zait. Egiten dudana musikan nabaria da gustoko ditudan eta entzuten ditudan taldeen eragina, hori ez dut sekula ukatu.

**G.** Eta euskal taldeak jarraitzen dituzu?

**E.** Bai. Gustokoen ditudan nik egiten dudana musikatik gertu daudenak dira: La buena Vida, Le Mans... Hortik aparte, Garirekin eta Fermin Muguruzarekin ere harreman onak ditut.

**G.** Kontaiguzu nolako izango den zuzenekoak.

**E.** Estudioa eta zuzenekoak ez dira gauza bera eta, beraz, diskoarekiko aldaketak izango dira zuzenekoan. Aurreko diskoetako eta Duncan Dhu-ko

kantu batzuez gain, azkenengo diskoak joko ditugu, baina "Acrobatas"-en kontzeptura moldatuta. Zuzeneko emozioak eta indarrak, estudioaren kalitatea ordezkatzeko dute. Bestalde, muntaia eta soinua nahiko klasikoak izango dira, baina sekuentzia batzuk sartuko ditugu eta soinu nahasketa hori oso erakargarria izango delakoan nago.

**G.** Zer motatako jendeak erosten ditu zure diskoak?

**E.** Adinean aurrera noa eta orain dela 10 bat urte Duncan Dhu-ren diskoak erosten zituztenek gaur egun ez dute diskorik erosi ere egingo. Uste dut artista guztien moduan entzuleak berriro joan naizela. Dena dela, 100.000 disko inguru saltzera heltzen garen guztiok publiko bera dugu, 15-20 urteko gazte jendea da, batez ere, disko eroslea. Monica Naranjok eta Dover taldeak ez dute bata bestearekin zerikusirik, baina askok eta askok bien diskoak erosiko dituzte eta hori ondo dagoela uste dut.

**G.** Duncan Dhu-ri berriz ere heltzeko asmorik bai?

**E.** Bai, urte amaieran disko berria grabatzeko elkartuko gara. Diego eta biok oso harreman onak ditugu, eta baikoitzak bakarka egiten duena gertutik jarraitzen dugu. Diego aste honetan etortzeko da Bergarara.

**G.** Musikatik kanpo zer egiten duzu?

**E.** Arkitektura ikasketak amaitzeko gogoak daukat. Bi asignatura geratzen zaizkit eta datorren hilean dauzkat azterketak. Musikari eta arkitekturari batera ekin nion orain dela 13 urte eta ezin izan ditut bata eta bestea banatu. Beharbada, hemendik bi hilabetera arkitekto izango naiz eta ez dakit titulua-ekin zer egingo dudana. B

**Gaskide, S.L.**

ITURGINTZA OROKORRA  
GASA ETA KALEFAKZIOA

☎ 76 49 00

HELBIDE BERRIA:  
Aritzetako San Migel 8-10  
BERGARA

PANA DE ROKUA  
JATE JXAL

Kontxi Idigoras

Asteburuetan  
bertako babak eta sabieskia

SALBADOR 10 ELGETA Tlf. 76 82 73

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE

**LAZKANO**

Oinetakoak

Barrenkalea 15  
☎ 76 25 03

**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra,  
poliuretanoa... Leihokak,  
ateak, manparak...

Eska ezazu  
aurrekontua konpromezu barik

Erakusketa: Masterreka 14 behea  
BERGARA  
Tf.: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**ETXEPARE-BILINTX**

LIBURUDENDA



Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**Pop britaniarra batez ere; Pearl Jamen azkena ere izugarri gustoko ditudan taldeen eragina; hori ez dut sekula ukatu"**

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Gurpildunentzako sahesbideak. 2. Izugarri. 3. Pluralean, intsektu mota. Duna hitzaren kontsonanteak. 4. Errepikatuz, gorotza. Amatatua. 5. Betekada. Lehenengoa. Norat atzikia. 6. Berrogeita hamar. Banandu. Mila. 7. Adar. Egona. 8. Detektigailua. Zakur. 9. Labore-hauts. Zerbaitek. 10. Ate, hitz elkerketan. Saltoa.

**Goitik behera**

1. Aizolketan jarduten duena. 2. Ukapenak. Atzo gauean. 3. Jatorri atzikia. Abade batek zuzentzen duen eraikimultzoa. 4. Hosto. Fruitu mota. 5. Barruan. Röntgen. Kontsonantea. 6. laz. Haizea. 7. Ekartzen dituzu. 8. Erbioa. Zelaia. Ukatzeko. 9. Diru zaharra. Zein pertsonari? 10. Joko-mota. Ezaugarria, ikurra.


**Soluzioa**

10. Kina. Marka.  
9. Ardit. Non.  
Pekartzazu. 8. Er. Laua. Ez.  
Bartan. R. J. 6. Igaz. Aire.  
Tar. Abadia. 4. Orri. Aran.  
Atzokaria. 2. Ukoak. Barr.  
Gorrik behera  
10. Ate. Jauzia.  
10. Ate. Jauzia.  
1. Abar. Izana. 8. Radarra. Or.  
Oka. A. Rat. 6. L. Banatu. M.  
Zorriak. Dn. 4. Ka. Itzaila.  
1. Autobideak. 2. Ikaragarri.  
Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauek erantzuten dituzun!**

1. Erreminta-makina ferian Bergara eta Antzuolako zenbat enpresa izan dira?  
A- 4  
B- 5  
C- 6
2. Nork entsaiatu du aste honetan Jam aretoan?  
A- Mikel Herzogek  
B- Bad Religioneek  
C- Mikel Ereñunek
3. Eguaztenean, hilak 11, zenbat euri egin zuen Bergaran?  
A- 55,2 litro metro karratuko  
B- 32, 4 litro metro karratuko  
C- 40,1 litro metro karratuko

**Non aurkitu ditzakegu bi iturri hauek?**

Jari Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du Berrigarak. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Eguzkitza** erretegiaren izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Esther Agirre**rentzat izan da: Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Estherri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Laudantz**. Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-C**.

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! **AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!**



**EGUZKITZA**

Aranerreka 30, BERGARA.  
Tf. 76 56 03

**Valtierrakoa (Nafarroa) jaiotzez, mutikotan Bergarara etorri zen. Lamaiño eta Arane baserrietan morroi lanak bete zituen eta 1985etik Mizpirualde egoitzan dago. Egutero alde batetik bestera ibiltzen da errekauek egiten.**

# Doroteo Samanes

**Baserrian zelako lana egiten zenuen?**  
Denetik; belarra moztu, ortuko lana, esnea partitu...

**Astoarekin jaisten zinen herrira?**

Bai, ni baino haundiagoa zen astoa.

**Orain lasaia biziko zara...**

Bai, baina hemen ere lan egiten dut, eh?

**Zelako lanak egiten dituzu?**

Erresidentziako errezetak ambulatorioan jaso, botikak ekarri, Correosetara joan...

**Anbulatorioan txanda errespetatzen ez duzula entzun dugu.**

Presarik ez dutela eta nik lan asko egiteko daukadala esaten diet.

**Zuretako errezetarik egiten duzu?**

Ez, osasunez ondo nago, niretako ez dut nahi.

**Griperik izan duzu aurten?**

Ez.

**Egunean, zenbat kilometro oinez?**

Auskalo! Asko ibiltzen naiz, horregatik nago hain gazte.

**Herrian oso ezaguna zara...**

Bai, alkateak ere ezagutzen nau.

**Zenbat diru daramazu poltsikoan?**

Propinetan jasotzen dudana.

**Asko izaten dira?**

Bai.

**Zertan gastatzen duzu dirua?**

Kafetxo bat, purutxo bat, txikitoren bat...

**Juergazalea zara?**

Ez, baina jaietan gaupasaren bat egiten dut.

**Pazkuak ala San Martinak?**

San Martinak.

**Barrakak ere gustoko dituzu.**

Tonbolan jokatzea batez ere.

**Denbora librean zer egiten duzu?**

Kalean jendearekin berba. Txantxetan ibiltzea gustatzen zait.

**Bergarako toki bat?**

Goiko plaza.

**Valtierrara joaten zara?**

Bai, urtean behin.

**Kartetan egitea gustatzen zaizu?**

Ez.

**Telebistako saioren bat?**

Ez dut ikusten.

**Zenbat ordu egiten duzu lo?**

Gaueko 9etatik goizeko 8ak arte.

**Janari bat?**

Babarrunak eta angulak.

**Eta jan ezin duzun bat?**

Makarroiak.

**Umore onekoa zara?**

Bai.

**Loterian jokatzen duzu?**


Eskurtsioetan bakarrik erosten dut.

**Nora joatea gustatzen zaizu?**

Berdin dit. Denetera apuntatzen naiz.

**Loteria irabaziz gero, zer?**

Afari on batekin ospatuko nuke.



BIZKOTIAK ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

**Parranaga**

San Pedro, 9 - Telefono: 761051

R.S.I. 209374 - 55

**BERGARA**

MEMESA S.L.

Gozogintzan aintzindari.

**ARDATZA**

*Brikolaketa*

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak

Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 76 18 93

**CARLOS GOITIA**

olio-erakusketa

**NAHIKARI** taberna

Masterreka 20 Tf. 76 57 71

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

**BIAK, S.L.**

I  
G  
E  
L  
T  
S  
E  
R  
I  
T  
Z  
A

A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38



## Lehen jaunartzea, 1938

Orain dela 60 urte (1938ko apirilaren 1ean) Bergaran lehen jaunartzea egin zuten neskatoak agertzen zaizkigu aste honetako erretratu zaharrean. Argazkia Errekalde jauregiaren aurrealdean aterata dago eta bertan gaur egun 71 bat urte dituzten neskatak ikusi ditzakegu ondo dotore jantzita.

Deigarria da kalez jantzita agertzen direla, garai hartako ohitura izango zen. Hau baino berriagoak diren lehen jaunartzeko hainbat argazkitan ikusi izan ditugu neskak zuriz jantzita eta mutilak marineru; orain dela aste batzuk argitaratu genuen bat. Hara nortzuk diren bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Goiko ilaran:** Mari Kruz Urzelai, Luisita Vi-

llar, Mari Karmen Arizmendi, Ana Mari Bea, Maria Arantzazu Igartua, Jesusita Berraondo, Jesusita Aranes, Mariasun Albisua, Maria Ormaetxea eta Maria Luisa Arabiurrutxea.

**Bigarren ilaran:** Eusebi Garitano, Eusebi Uribeberria, Angeles Elortza, Kontxita Uriarte, Maria Piedad Soria, Juanita Ezpeleta, Anita Suinaga, Juanita Larrañaga, Elena Luarizaristi, Maripaz Larrañaga eta ezezaguna.

**Hirugarren ilaran:** Esperanza Bilbao, Maria Dolores Berasategi, Imelda Iturbe, Maritene Elortza, Aintzane Marco, Trinidad Aranberria eta Karmen Iñarra.

Argazkia: Elena Luarizaristi

**YAZKI**

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar 3 Ibagari 8  
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 76 20 21

Industria **U** Industriaren  
hornikuntzak **UNIFE** alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea 9 ARRASATE  
Tf. 79 42 22 • F. 79 47 89  
Santa Cruz 25 ARETXABALET  
Tf. 77 11 75 • F. 77 13 08

# Igaro

## usaindegia



⌘ Kosmetika-tratamendu pertsonalizatuak.

# Igaro

## edertze aretoa



⌘ **Elektrologia Zentrua**  
(depilazio elektrikoan espezializatuak).  
Bergarako lehena.



⌘ **Drenaje linfatikoa**  
estres, hanka nekatu, zirkulazio txar, buruko min eta idorreriarendako, besteak beste.

*Vodder metodo austriarraren  
Espainiako eskola ofizialeko diploma.*

⌘ **Tratamendu bereziak** aurpegi eta gorputzerako.

⌘ **Biosolariuma.**



sofa  
leku

a, eme... interiores



centro  
hogar  
muebles

grupo



# Amuebladora Mondragonesa

- a. eme. interiores**, Garibai, 9 ■ ARRASATE ■ Tel.: 79 15 03  
**a. eme. sukaldeak**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92  
**centro hogar muebles**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92  
**sofa leku**, Zigorrola, 1 ■ ARRASATE ■ Tel.: 77 14 92